

DATORRENA

Orain presoak

GORKA ELEJABARRIETA > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Bai, baina...

XABIER IZAGA > 11

KOADERNOA

Berbarik gabeko aldarria

LAURA MINTEGI > 21

2018ko urtarrilaren 13a | XII. urtea • 552. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

URTE BELTZA HAURRENTZAT

> 4 Izena ABIZENA | AGENTZIA



«Zorigaiztoko urtea» haurrentzat,
Unicefen txostenaren arabera 04

Weah, Futbolaren Olinpotik
etorritako presidentea 08

Gurearbasoak.eus, arbasoei izena
eta abizena jartzeko tresna 12

Inora iritsi beharrik ez bagenu 15

Proiektors, iraganari hautsa
kentzen 17

Elkarrizketa: Mikel Epaltza,
arrantzaleen apaiza 22


Entsaladak ez dira bakarrik
udarako 26

In fraganti: Beñat Goitia eta
Adrian Puck 28


Juantxo Egañaren behatxulotik 31



8



12



17



SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Orain presoak
10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Lurralde eskubidea
11 **Xabier Izaga:** Bai, baina...
16 **Amaia Ballesteros**
20 **Arantxa Urbe:** Diru gehiago behar da Hezkuntzan
21 **Laura Mintegi:** Berbarik gabeko aldarria
27 **Koldo Sagasti:** Zaplaztekoa
27 **Mirari Martiarena:** Gutuna
30 **Maria Gonzalez Gorosarri:** Kritikaren eragina



22



28

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Orain presoak

Gatazka politiko armatua bizitako lurraldeak eredu hartuta, preso politikoen gaian zentratuz, izan diren eta oraindik ere aurrera doazen hainbat gatazka-konponbide prozesuri begirada azkar bat ematen badiegu, nire ustez berehala hiru ondorio nagusi atera

genitzake. Batetik, preso guztien kaleratzea ekarri duen prozesu errazik ez dela sekula gertatu. Aldeen arteko borondatea, elkarrizketa, negoziazioa eta akordioak egonda ere mota honetako prozesuak beti dira zailak eta geldoak, bereziki kartzelan norbait duen senide edo lagunarentzat. Hegoafrikan, Irlandan ez zen erraza izan preso guztien kaleratzea lortzea. Kolonbiako akordioen inplementazioan izaten ari diren zailtasunek ere berdina erakusten digute. Baina horrekin batera esan beharra dago ere, horrelako prozesuek erakutsi diguten bigarren ondorioa, preso guztien kaleratzerik gabe ez dagoela gatazka politikoak konpontzerik. Gatazkak sorturiko ondorioak konpondu ezean, kartzeletan presoak dauden bitartean, ezin dira gatazka

politikoak konpondu. Gizarte edo herri batek aurrera egin ahal izateko behar-beharrezkoa du horrelako gatazka politikoak modu onean konpontzea, ondorioz, pentsa zitekeen denon interesean dela ere eta denon babesa eta parte-hartzea behar duela horrek, denok baitugu mota bateko edo beste-

ko ardura. Eta hirugarrenik, preso izandakoek oso paper garrantzitsua jokatu dute eta jokatzen dute kalean gatazken konponbidean eta baita ere herri horien etorkizun eta garapen politikoan. Pepe Mujica edo Lucia Topolansky, Nelson Mandela, Martin McGuinness datozkit burura orain adibide bezala, baina beste asko ere badaude. Nelson Mandelak gai honen harira oso argi adierazi zuen ideia hau «Nire herrian lehenengo kartzelara goaz eta ondoren presidente bihurtzen gara» bota zuenean.



Azken hilabete-urteetan Ipar Euskal Herrian garatu den konponbide prozesuaren aldeko desmartxa oso emaitza onak lortzen ari da, Gobernu frantsesarekin presoan afera konpontzeko eztabaida marko ofizial bat

ezartzeraino, eta horrek, ekarriko dituen ondorioak oraindik ezagutu gabe ere, berebiziko garrantzia du, “de facto” prozesuaren desblokeo partziala suposatzen baitu. Ez dirudi momentuz honen ondorioz espainiar Gobernuak bere jarrera aldatuko duenik, baina espainiar posizioa gero eta isolatuagoa egoteak eta bai Euskal Herrian bai nazioarteko komunitatean gero eta ulergaitzagoa izateak konponbidea bilatzen dugunon aukerak biderkatzen ditu. Inork gutxik uler baitezake gaur egun munduan, ETak borroka armatua behin betiko utzi zue- netik sei urte pasa direnean eta desarme osoa amaitu ondoren, oraindik ere espainiar Gobernuak gatazkaren konponbidean ez engaiatzea.

Abenduan Parisen milaka herritarrek presoan gaia konpontzeko tenorea dela aldarrikatu zuten, gaur Bilbo-ko kaleak berriz ere beteko dira aldarrikapen berdinarekin, herri honek argi adierazi baitu behin baino gehiagotan, gatazka politikoaren konponbide integrala babesten duela eta babesten jarraituko duela. Ez dezagun burua

Gertatutakoaren gaineko iritziz
ezberdinetatik harago, guztien interesen
onerako da herri honek bizi duen gatazka
politikoaren konponbide integrala

makurtu, ez gaitezen etsipenean erori, argi izan dezagun Euskal Herrian ere, goiz ala berantago preso guztien kaleratzea lortuko dugula. Batzuek edo besteek herri honetan gertatu den guztiaren inguruan izan ditzakegun iritziz ezberdinetatik harago, guztien interesen onerako delako herri honek bizi duen gatazka politikoaren konponbide integrala. Duela zenbait hilabete Europako Parlamentuan Martina Anderson preso ohi errepublikano eta egun eurodiputatuarekin gai honetaz berbetan ari ginela, gaixo dagoen euskal preso politiko baten senideari presoan kaleratzea lortuko genuela esatearekin batera Nelson Mandelaren beste esaldi ospetsu bat esan zion: «Lortu arte beti dirudi ezinezkoa». •



«ZORIGAIZTOKO URTEA» HAURRENTZAT

Ainara Lertxundi

Munduan dauden gatazka egoeretan, haurrak erasoen jomuga bihurtu direla salatu du Unicefek. 2017 «zorigaiztoko urtea» izan zela nabarmendu zuen urteko balantzea egitean. Eskubide urraketen zerrenda luzea da: aire erasoak, desnutrizioa, lurreko minak...

Amaitu berri den urtearen balantzea egitean, Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Funtsek (Unicefek), gatazka armatuak eta gerrak pairatzen dituzten zonaldeetan bizi diren adin txikikoentzat 2017 «amesgaiztoko urtea» izan zela salatu zuen. Umeen kontrako erasoak eta ekintzak biderkatu ziren. Aire erasoen, derrigorrezko errekrutatzearen edo sexu biolentziaren biktimak izateaz gain, giza ezkutu gisa erabili zituzten hainbat herrialdetan. Pertsonen kontrako minen edo eztanda egin gabeko lehergai-luen ondorioz, mutilazioak ere jasan zituzten askok.

«Haurren kontrako erasoen eskala izugarria izan zen iaz, aktore armatuek muzin egin baitzioten Nazioarteko Zuzenbideari eta ez zituzten inondik inora errespetatu haurren eskubideak bermatzen dituzten legediak», nabarmendu zuen Unicefek.

«Sirian, Iraken, Yemenen, Myanmarren, Hego Sudanen, Nigerian, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Ukrainan... eraso basatien jomuga izan ziren. Etxean, eskolan nahiz jolastokietan biolentzia izugarriaren lekuko izan ziren. Horrelako egoerak urtero errepikatzen badira ere, ezin gara horietara ohitu. Ezin ditugu begiak itxi eta beste alde batera begira-

Ezkerreko irudian, Kongoko Errepublika Demokratikotik ihes egindako haur bat Angolako Dundo herrian zabaldu duten iheslarientzako kanpaleku batean. Argazkia maiatzaren 30ean egindakoa da. Alboan, Anta Cissek 24 hilabeteko alaba besoetan du Malin. Desnutrizio zorrotza pairatzen du. UNICEF

tu. Horrelako basakeriak ezin dira normaltzat hartu», plazaratu zuen Larrialdietako Programaren zuzendariak, Manuel Fontainek.

Hildakoen edo zaurituen zifrak dira gehien kontuan hartzen diren adierazleak gatazka armatu baten inpaktua baloratzerakoan. Baina, badira beste batzuk, hala nola desnutrizioa, gaixotasunak eta traumak. Oinarritzko zerbitzuak –ur edangarria, janaria, osasuna, saneamendu sarea...– ukatzen zaizkie etengabe eta denbora luzez.



YEMEN, GOSETEAREN ETA ERITASUNEN ARTEAN

Duela bi urte baino gehiago hasi zen gerraren eta geroztik Saudi Arabiak zuzentzen duen aliantza militarrek ezarri duen blokeoaren ondorioz, 1,8 milioi ume gaizki elikatuta daude gaur egun Yemenen. Haur horietatik, 400.000k desnutrizio larria pairatzen dute eta urgentziatzko tratamendua behar dute bizirauteko. «Urte beldurgarria izan zen. Abenduan soilik hildakoen edo

zaurituen artean 80 haurretik gora egon ziren», plazaratu zuen Yemenen Unicefek duen ordezkariak, Meritxell Relaňok. Duela gutxi, «hezur eta azal» besterik ez ziren ama bat eta bere 7 urteko semea ezagutu zituen Adeneko ospitale batean.

«Erietxera lehenago zergatik ez zen joan galdetu nion. Autobusaren bidaia txartela ordaintzeko adina diru ez zuela erantzun zidan. Izugarria da familien baliabide eskasia», kontatu zuen Relaňok Yemengo egoera lazarriaren adibide gisa. Haren hitzetan, «benetako heroiak herrikideei laguntzen dieten yemendarrek dira».

Gerra hasi zenetik mila egun bete zirenean, Unicefek, Osasunaren Mundu Erakundeak (OMEk) eta Munduko Elidakura Programak (MEPeK) Yemengo egoera ikaragarria dela ohartarazi zuten. «Egoera katastrofikoa da. Zibilek pairatzen duten sufrimendua pentsaezina da», nabarmendu zuten. Lau yemendarretatik hiruk laguntza humani-



tariora behar dute eta hamasei milioi herritarrek ez dute ur edangarririk.

«Mila familiak eta gehiagok beren etxea utzi behar izan dute muturreko biolentzia dela-eta. Yemendarrek mila egun daramatzate ondo elikatzeko janari eta edateko ur nahikorik gabe. Mila egun horietan, ospitale eta eskolei airez eraso diete. Umeak borrokatzeko derrigorrez errekrutatzen ari dira, gaitasunak eta heriotza eguneroko zer-bait bihurtu dira. Yemengoa mundu mailan egun dugun krisi humanitario larriena da», plazaratu zuten Nazio Batuen menpe dauden hiru erakundeek. Biztanleriaren %75 laguntza humanitarioaren beharrean dago, horien artean 11,3 milioi haur.

Yemenen dauden osasun etxeen erdiak baino gutxiago daude erabat irekita, eta medikuak hilabeteak egon dira soldatarik jaso gabe. «Hau da dakiguna. Benetako balantzea okerragoa izan daiteke, zeren komunitate batzuetara ez dugu sarbiderik eta, beraz,

Goian, ume rohingya batek Cox's Bazaar-en (Bangladesh) dagoen iheslarientzako kanpaleku batean egindako marrazkia. Behean, 11 urteko mutiko batek Siriako al-Yarmouk kanpaleku palestinarrean egindako marrazkia. Bietan, gerra eta heriotza dira gaiak. Alboan, 10 urteko bi ume jolasean, Siriako Ekialdeko Gutan. UNICEF

Dada 15 urteko neskatoa da, Nigeriako ipar-ekialdean bahitu zuen Boko Haram talde armatuak. Haurdun gelditzen bortxatua izan eta gero. Bere herrira itzuli zenetik, «etengabeko sufrikarioa» jasan du

Hego Sudanek duela lau urtetik hona pairatzen duen gatazka armatuaren eta gosetearen ondorioz milaka pertsonak ihes egin dute Ugandara, eta iheslari horietako gehienak emakumeak eta haurrak dira

ez dakigu bertako egoera zein izan daitekeen. Herrialdeak inflexio-puntua pasa du jada, krisialdia gero eta sakinagoa den hondamendi egoera bihurtu da», esan zuten OMEko, Unicefeko eta MEPEko zuzendari orokorrek, Tedros Adhanom Ghebreyesus, Anthony Lakek eta Davi Beasleyk, hurrenez hurren. Erregaiak premiazkoak dituzte. Ospitale askok itxi egin behar dute ez dutelako erregai nahikorik. Hiru milioi pertsonarentzako ur hornidu-

ra bermatzen duten ponpaketa sistematik erregairik gabe gelditzen ari dira eta ur edangarriaren salneurria sei aldiz biderkatu da. Herritarren bi herenak baino gehiago muturreko pobrezian bizi dira.

ROHINGYEN IHESALDIA MYANMARRETIK

Mugarik Gabeko Medikuek (MSF) erakundearen arabera, abuztuaren 25az geroztik 640.000 rohingyek Bangladeshera ihes egin dute, biolentzia dela-eta. Myanmarreko Armadak gutxienez 7.000 zibil hil ditu. Aik eta HRWk salatu dutenez, soldaduek ehunka herrixkari su eman diote, erabat edo hein batean txikituz.

Bangladesheko Kutupalongeko eta Nayaparako kanpalekuan eta Ukhian nahiz Teknafyn zabaldu diren egonleku informetan bizi diren 1.700 haur baino gehiagoren osasuna aztertu du Unicefek. Ondorioak benetan kezgarriak dira. Bost urte baino gutxiago dituzten haurren %25ek malnutrizio zo-



Alepon, Sirian, Unicefek banatutako testuliburuak esku artean dituen haur bat. Behean, Vika eta Yulia ahizpak beraien herritik, Avdiivka, Donetsk eskualdean, ihes egiten liskarrak eta neguko hotz gordina dela eta.
UNICEF



Nazio Batuen Giza Eskubideetarako goi mandatariak, Zeid Ra'ad Al Husseinek, salatu berri duenez, Siriako zibilek «jasaten duten sufrikarioak ez du mugarrik». «Ekialdeko Gutako setioak egoera katastrofikoa eragin du», esan du.

«Sirian, Iraken, Yemenen, Myanmarren, Hego Sudanen, Nigerian, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Ukrainan... eraso basatien jomuga izan ziren. Etxean, eskolan, jolastokietan biolentziaren lekuko izan ziren haurrak»

rrotza dute eta erdiek anemia. Behar bezala elikatuta dauden kopurua %16 baino gutxiago da. Horrek ondorio nabarmenak ditu beraien garapen fisikoan eta psikologikoan. %40k beherakoa dute –adin horretan heriotza gehien eragiten duen gaitzetako bat da– eta %60k arnasbideetako infekzioak dituzte.

Sei hilabete baino gutxiago dituzten umetxoen artean, %30k ez dute ama esnea hartzen. Emakume askok ez dute bularra emateko esne nahikorik, jasan duten muturreko estresaren eta traumaren ondorioz.

Iheslariak ilara luzeak egin behar dituzte komunera joan ahal izateko. Hori dela eta, askok zelaietan egiten dute kaka, infekzioak hedatzeko arriskua areagotuz. Ur edangarria eskuratzeko, ibilaldi luzeak egin behar dituzte egunero eta ezin dute eskolara edo dauden jolastoki bakarretara joan.

Nazio Batuetako agentziek koleraren kontrako 900.000 txerto banatu dituzte, eta 450.000 hurrei elgorriaren eta errubeolaren kontrako txertoa jarri diete. Egun, difteria izurritea ekiditeko txertaketa kanpaina ipini dute abian. «Ihesaldian irudikatu ezinezko sufri-mendua pairatu ostean, orain osasun publiko gabeziari aurre egin behar diote haurrek. Sektore ahulena da eta desnu-

trizioak, beherakoak eta infekzioak ahultasuna areagotzen dute», nabarmendu zuen Unicefek Bangladeshen duen ordezkariak, Edouard Beigbederrek.

UKRAINA, LURREKO MINEN ARRISKUA

Ukrainaren ekialdean, 220.000 ume ezandarik egin gabeko pertsonen kontrako lurreko minen eta bestelako lehergailuen artean bizi dira. «Onartezina da haurrek duela gutxira arte segurtasun osoz jolas egiten zuten gu-neak orain lehergailuz josita egotea. Gatazkan parte hartzen duten aktore guztiek arma mota horiek erabiltzeari uko egin beharko liokete. Komunitateak arriskuan jarri dituzte; umeak hiltzeko edo zaurituak izateko arriskuan daude; lurreko minek edozein momentutan eztanda egin dezakete eta», plazaratu zuen Unicefeko bozeramaileak herrialdean, Giovanna Barberisek.

Iazko urtarrilaren eta azaroaren artean, astero haur bat hil zen, lurreko minak arrazoi nagusietariko bat izanda.

Oinarrizko azpiegiturak –ura, elektrizitatea eta gasa hornitzen dituztenak, esate baterako– ere kalteak jasateko arriskuan daude. Abenduan, Donetsk-en, ura filtratzeko biltegian lehergailu bat antzeman zuten. Biltegi horri esker, 350.000 pertsonak ur edangarria dute.



Ama bat haurra altzoan duela Irakeko Mosul hirian. Behean, 12 urteko Latjor Mayal, bere ondasun guztiak saski batean daramatzala Bentiu herrian dagoen kanpalekura, Hego Sudanen.

ROMENZI
HATCHER-MOORE / UNICEF

Dashak 17 urte ditu. Ukrainako ekialdean bizi da. Aire erasoak daudenean, familiak duen sotoan babesten dira. Kie-veko gobernuaren kontrolpean dauden eta ez dauden zonaldeak banatzen dituen «borroka lerroan» kokatuta dago bere herria.

600.000 zibil bizi dira «borroka lerrotik» bost kilometro baino gutxiagora. Errefuxiatuentzako Norvegiako Biltzarra (NRC) salatu duenez, oinarritzko zerbitzuen gabezia orokortu egin da. Donbasseko biztanleriaren egoera sozioekonomikoak nabarmen egin du okerrera eta, jada, 1,2 milioi pertsonak elikagai gabezia dute. Negu gordinen ez dute ondo elikatuta egoteko jaki nahikorik eta baliabide urriak bero mantentzeko tresnak ordaintzeko erabiltzen dituzte.

«Negua oso luzea eta gogorra da. Etengabeko borroka direla-eta, herri-tarrek ezin dute merkatura joan janaria eta erregaiak erosteko. Egoera askoz okerragoa da adineko pertsonentzat eta gutxituentzat», helarazi zuen NRC-ko zuzendariak Ukrainan, Christopher Mehleyk. Herri askotan ez dago gas horniketak eta herriarrak egurra eta ikatza erabiltzera behartuta daude zero azpiko tenperaturari aurre egin ahal izateko. «Ikatz tona bat jasotzen dudan



pentsioa baino lau aldiz gehiago da. Neguan, hiru tona ikatz behar ditut, baina ezin ditut ordaindu. Lurreko minak direla eta, ezin gara basora joan egurra hartzera», azaldu zuen Yuriik. «Borroka lerrotik» sei kilometrora dagoen Druzhba herrian bizi da. Gatazkak 4,4 milioi pertsonari eragiten dio, eta horietatik 3,4 milioi pertsonak laguntza eta babesa behar dute. Gerraren hasieratik 2014. urtean, 10.000 pertso-

na hil egin dira, horien artean 2.500 zibil, eta 1,5 milioi pertsonak baino gehiagok beren etxeak utzi dituzte.

AFRIKAKO HERRIALDEETAN

Kongoko Errepublika Demokratikoaren (RDC) ekialdean, Tanganyikako eta Hego Kivuko probintzietan, milioi bat lagunek baino gehiagok, horietatik 700.000 adin txikikoak, ihes egin behar izan dute biolentzia etnikoaren ondo-

rioz. Batzuk behin-behineko kanpalekuetan daude, beste batzuk, berriz, harrerako familietan. Estutasunez bizi dira.

Gatazka etnikoek gain, kolera izurrittea dago 21 probintzietan –RDCak 26 probintzia ditu–. «Herriarrek pairatzen duten sufrimendu mailak egunero marka berria hausten du», aditzera eman zuen Nazioarteko Gurutze Gorriaren Federazioak.

Nigerian eta Kamerunen Boko Haram talde armatuak 135 ume ekintza armatuetan esku hartzera behartu zituen. Hego Sudanen, ekonomiaren gainbeherak gosetea eragin du hainbat zonaldeetan eta 19.000 beraien borondatearen kontra errekrutatuta dituzte. Duela lau urtetik hona, 2.300 haur baino gehiago hil dira liskarretan.

Afrika Erdiko Errepublikan, Unicefek «belaunaldi oso bat bizi osorako trauma pairatzeko arriskuan dago. 2017 bereziki gogorra izan zen emakumeentzat eta haurrentzat. Ez dute hezkuntzarik, ezta osasun zerbitzurik ere. Biolentzia bortitzaren lekuko dira».

Eskolen %20 itxita daude segurtasun eza dela eta zabalik daudenetan irakasle gutxi daude. Unicefek behin-behineko 50.000 eskola ahalbidetu ditu eta talde armatuetatik alde egin duten 1.900 haurren zaintza bere gain hartu du.

{ profila }

GEORGE WEAH

«Mister George»: Futbolaren Olinpotik etorritako presidentea

George Oppong Weah amak hazitako ghattoko umea da. Liberiako hiriburu den Monroviako Gibraltar txabola auzoan jaioa, eskolatik porru egin eta sosa batzuk irabazteko arto-krispetak enkantean salduz egin zuen aurrea haurtzaroan. *Kru* etnikoa da sortzez, hau da, «jatorrizko liberiarra», eta ez AEBetatik askatutako esklaboen ondorengo diren *congo*-a. Kasta baxuenetarikoa da *kru*-ek osatutakoa, etnikoki oso arrakala sakonak dituen herrian.

Monroviako hautsez beteriko kaleetan egin zen futbol jokalaria, trapuzko baloiei ostikadak ematen. Kamerunen jokatzeko zebilela, 22 urterekin, Arsene Wengerrek Monako talderako fitxatu zuen; bost urtez jokatu zuen bertan, Paris Saint-Germainek fitxatu zuen arte. Bertatik, Milana joan zen, eta, Italiatik, Ingalaterrara, Chelsea eta Manchester Cityn jokatzeko. Bere kirol ibilbide benetan handiari Arabiar Emirerri Batuetako Al-Jazira taldean eman zion akabera.

Jokalaria bikaina izan zen Weah, Afrikan inoiz izan den handiena. FIFAk Afrikako, Europako eta munduko jokalaria onena izendatu zuen 1995. urtean; urte bat geroago Urrezko Baloia eskuratu zuen. Driblin, esprint eta jaurtike-ta bikainak zituen, baita buruz errematatze-ko ahalmen ikaragarriak ere. Europan gol gehien sartu eta partida gehien jolastu dituen futbolari profesional afrikarra da.

ALDAKETAK JARRAITUTASUNARI IRABAZI

Kronikek diotenez, Weah handiak bere golik onena sartu berri du. Gol politikoa izan da, hirugarreneko saiakeran bere herrialdeko presidentetza lortuz. Aldaketa eta jarraipenaren arteko aukeraketa bat bezala aurkeztua izan den lehian, botoen %61,5ekin irabazi zion botoen %38,5 eskuratu zituen Joseph Boakairi, orain artean presidenteorde zenari. Garaipena, baina, ez da polemikarik gabe etorri. Izan ere, Weah berak



Ghettoan sortua eta Liberiako kasta baxuenetarikoa den *kru* etniako kidea da George Weah. Gehiengo baztertuak esperantza oso handiak jarri ditu harengan, beren eguneroko esperientzia berbera bizitakoa delako eta «establishment»-aren aurkako mezua dakarrelako.
Joel SAGET | AFP

presidenteordetzat gerra jauntxo izandako Charles Taylor presidente ohiaren emazte izandako Jewel Howard Taylor hautatu izanak zeresan handia eman du. Hautu surrealista dirudi kanpainan zehar bere senar ohiaren «agenda politikoa berriz ere mahai gainean jarri» behar dela esan zuen Jewel Taylorren alde egin izana, baina Taylortarrei leial diren eskualde eta bozkalekuetan boto pila eskuratzea lortu du gutxienez makiavelikoa kontsidera daitekeen jokaldia eginez.

Orain arte botere aldaketa baketsurik ezagutu ez duen Liberiak, bertako fut-


bol izarra Ellen Johnson Sirleafen eskutik boterea hartzen ikusiko du. *Mum Ellen* bezala ezagutua den Sirleaf, Harvardeko graduatua da, Nazio Batuen eta Mundu Bankuaren enplegatu ohia, eta Afrikako historiako lehen emakume presidentea. Hamabi urtez karguan egon eta gero, Konstituzioak hala aginduta, bere postua utzi dio ghattoko *kru* etniako mutikoari, futbolaren Olinpotik izarrari. Honek, baina, Sirleafek ez bezala, ez ditu nazioarteko kontaktu sareak, Liberiari ia bost mila milio dolarreko zorra barkatu ziotenak edo 2013ko Ebola izurrite izugarriaren aurka egiteko 3.000 soldadu bidali zizkionak –Barack Obamak berak tartean–.

Sirleaferi, hori bai, Liberia gerratik kanpo mantentzea lortu izana aitortu behar zaio. Ia hamabost urte iraun eta milioi laurden hildako eragin zuen gerra zibil odoltsuaren ondoren, nolabaiteko bake hauskor bati eutsi izana. Baina bistan da ustelkeriak, langabezia izugarriak eta osasun sistema eskasak haren gobernua gaztigatu dutela.

ASKATUTAKO ESKLABOAK SEGREGAZIO ITURRI

1989 eta 2003 arteko gerra zibil odoltsuaren amaieratik hamalau urte pasatu direnean, arazoak handiak eta desafioak are handiagoak dira Weah presidentearentzat. Monroviako biztanleen %7k soilik dauka argindarra, ur hornidura eskasia larria da, langabezia itzela, hiru herritarretik bi egunean 1,7 euro baino gutxiagorekin bizi dira. Diamanteak, burdina, kautxua eta palmondo olio bezalako baliabideak izan arren, kodiziak, botere-goseak eta despotismoak Liberia Afrikako herrialde pobreenetarikoa izatera eraman dute.

Afrikako mendebaldean kokatutako lau milioi eta erdi pasatxoko herrialdea, independentzia aldarrikatu zuen kontinenteko lehena izan zen 1847. urtean. Esklavo beltz askatuek sorturiko munduko bi herrialdeetako bat da Liberia. Bestea, Sierra Leona da. Aurrena AEBetatik etorritako esklaboek sortu



Futbol jokalaria liberiarra 1996. urteko Urrezko Baloia altxatuz, Italiako Ligako Milan eta Sampdoria taldeen arteko partida baten ostean.
Carlo FERRARO | AFP

zuten, eta, bigarrena, Karibeko esklaboek. Bizitzaren ironiak zer diren! Askatutako esklaboek (*congo*) jatorrizko etniakoak (*kru*) azpiratuz ezarri zuten beren segregazio sistema partikularra. Orduz geroztik, herrialdeko elite egin da, botere egiturak kontrolatu dituzte.

Bestalde, badirudi hautetsontziek kalaxnikov fusilen lekua hartu dutela Liberiako politikagintzan. Badirudi dagoeneko hauteskunde emaitzen inguruko liskarrak epaitegietan konpontzen direla ea ez elkarri tiroka. Gaur-gaurkoz, herrialdea ez dagoela jauntxo eta milizien legearen aurrean

belaunikatuta dirudi. Charles Taylor gerra jauntxo eta presidente ohia egun gerra krimenengatik Britainia Handiko espetxe batean preso dago, handik hari politiko asko mugitzen dituela esaten den arren eta bere emazte ohia Weah beraren bigarrenengo den arren. Eta ez da ahaztu behar Taylorren aurreko bi presidenteak tiroz hil zituztela.

«NO WEAH, NO PEACE»

Liberian idolatratu egiten dute Weah, *Mister George* bezala ezagutzen dutena. Bere jarraitzaileek, ghettoke jendea eta gazteak batez ere, presidente izate-

IBILBIDEA 1966an jaio zen Monrovia, Liberiako hiriburuan. 1995. urtean Afrikako, Europako eta Munduko futbol jokalaria onenaren saria jaso zuen. Kru etniako kidea da, hau da, jatorrizko liberiarra eta ez «congo»-a edo AEBetatik heldutako esklabo askatuen ondorengoa, luzaroan herrialdeko boterea monopolizatu dutenak. Bi aldiz porrot egin ostean, hirugarrenean hautatu dute presidente.

ko jaioa dela uste dute, bere patua hori dela, eta adoratu egiten dute horregatik, agian gehiegi. Berarengan esperantza oso handiak jarri dituzte, beren eguneroko esperientzia berberak bizitakoa delako, ghettoke umea delako, eta *establishment*-aren aurkako mezua dakarrelako.

Weah handiak beren egunerokoa ezagutzen duela uste du ghettoke jende baztertuak, beren esperientzia eta sufrikarioa haragitan bizi izan dituenak ezin diela traizio egin. Haren jarraitzaileak ospakizunetan aritu dira egunotan Monrovia, zoriontasunaren

eztanda frenetiko betean, danborrak joaz, “*No Weah, no peace*” aldarri, furgonetetan hiriburua zeharkatzen.

Ez da falta, halaber, *Mister George* handiari prestakuntza falta egotzi diotik. Esperientzia politikoa falta duela. Eskolagabea, heziketarik gabeko soldadu xehea dela, baloiaren alde eskola utzi zuen kale zakur hutsa. Kezkaz begiratzen dute Weah heroiaeren presidentetza berria, futbolaren Olinpoko izar bat izatea ez dela nazio bat gidatzeko kredentzial nahikoa sinetsita.

Weah ez da beste lider liberiar batzuk bezalakoa. Bere aurreko Samuel Doe eta Charles Taylorrekin alderatuz gero, ez da kalaxnikova eskutan ibilitakoa, milizia armaturik ez du gidatu.

Liberiak hainbeste krisi eta gerra odoltsu eta suntsitzaille pasatu ditu, ezen presidente berriak ezin duen herria, beste behin ere, anabasa eta kaosetan erortzen utzi. Ekonomia hondamendi egoeran dagoela hartu du herrialdea, eta kautxu eta burdin esportazioen prezioen gainbeherak ondorio latzak izan ditu (Liberiako ekonomia bi oinarri nagusiak dira).

Nola hala eutsi dio hamabost urtez gerraosteko bake hauskorrari Liberiak, baina hori lortu duen presidentearekin, *Mum Ellem* Sirleafekin, lanak, irakaskuntzak, landa garapenak, osasun sistemak eta kanpo inbertsioek behera egin dute. Liberiako azpiegituren egoera, halaber, negargarria da. Horri guztuari egin beharko dio aurre Weahk. Eta hartara, futbolaren negozioan irabazitako diruarekin, bere kontu korrontetatik ateratako sosekin, filantropia poxi bat egitea ez zaio nahikoa izango.

Eta batez ere, presidente karguan bere aurrekoek izandako joerak ekiditen asmatu beharko du, bai ala bai: palazioen *grandeur*-ean ez erortzen, errege baten pare bizitzeko tentazioa alboratzen, botere egarria eta gehiegikeriarekiko gustua uxatzen.

Mikel Zubimendi Berastegi



Ula Iruretagoiena Busturia
Arkitektoa

Lurralde eskubidea

Gizartearen funtzionamendu etikaren oinarritzko teoriak dio gizabanako guztiek bizitza duin bat eskuratzeko eskubidea dutela. Eskubidea eskaera bat da, zeina legeetan jasorik gelditzen den. Horrek ez du eskubidearen babesa bermatzen, baina elkarbizitzarako funtsezko araudien eta giza baloreen erredakzioztat jo daiteke, bizitza kolektiboan gerta daitezkeen bortxa egoerak salatzeko erreferentziatzat alegia. Bizitzaren duintasuna zertan den zehazterakoan, espazioarekin erlazioaturiko eskubideak zerrendatuko ditugu ezinbestean, bizitza espazioei loturik garatzen delako eta espazioak berak bizitza bat edo beste baliatzeko eragin zuzena duelako.

Etxebizitza, indibiduoak bizitza aurrrera eramateko ezinbesteko espazioa delako, eskubide bezala aldarrikatzen da. Espazioa emantzipatzailea dela ulertuz. Arkitektura klasikoaren ikuspegitik etxea gotorleku-eraikuntza bat

da, kanpoko klima eragileetatik –euria, eguzkia, tenperatura, hezetasuna...– babesten gaituelako. Hots, arkitektoarak gizakiaren babesa proposatzerakoan, azentua kanpo eragileetan jartzen du. Pareta artean eta estalpe azpian gertatzen den espazio pribatuan ez da, baina, gizakien babes-espazioaren eskubidea ziurtatzen, kanpoko begiradatik salbu gelditzen den txokoa, “barne eragileak” medio, jazartzailea izan baitaiteke. Hormigoizko paretarik existitzen ez da gure gorputzaren salbazio-espazioa eraikiko duenik. Gure gorputzaren azala bilakatzen da espazio aldarrikatzaile –batik bat emakumea, ez zuria eta txiroa baldin bazara–. Baina tira, hori bestelako ur-handitan sartzea da...

Eskubideak gizakiaren agresio-esparruak defendatzeko eskakizunak direlako, «hiria izateko eskubidea» XX. mendeko erdialdetik entzungai dugu, hiria kapitalaren eta merkatuaren zerbitzura jarri zen garaitik

hain justu. 1968an Henri Lefebvbrek aldarrikatu zuen lehen aldiz, espazioa politikoa dela ulertuz. Politikoa, hiriaren espazioetan erabakitzen direlako kolektibitatearen gai nagusiak. Hala, hiria denaren eta izan daitekeenaren gainean erabakitzeko ahalmen politikoan parte hartzeko eskubidea aldarrikatu zuen. Baina egun “hiria izateko eskubidearen” aldarriak zentzua galdu du, hirian aurretik sumatu ezin daitezkeen gertaerak ematen ez diren unetik eta hiriak erresistentziaren sentimen kolektiboak libreki adierazteko espazio izateari utzi dionetik.

Eskubideez eta espazioaz ari garela, Hego Amerikako hainbat indigena komunitateren konstituzioetan jasotako Pachamama edo Ama Lurra zaintzeko eskubide eta beharra harira ekartzeak interesa du. Zapaltzen dugun lurra gure bizilekuaren sostengua dela –fisikoki eta sinbolikoki– eta gure askatasunaren gainazala onartzea suposatzen du horrek. Lurraren eta bizitzaren artean eraiki behar den harremana antzinako komunitateetan izugarri presente zegoen, eta, euskal baserritarren pentsamoldean, zer esanik ez. Lurrarekiko errespetua hiriatarako bidaian bidean galdu dugun hazia da, eskubide izateari uko eginaz bien bitartean.

Ama Lurra gogoan, pentsatzen jarri naiz «lurralde eskubidea» kontzeptua sortu beharko bagenu nola has gintezkeen. Lurralde eskubidean lurraren gainean eta azpian bizitza kolektiboaren funtzionamendua bermatzeaz arituko ginateke segur aski, bizitzeko beharra eta ingurumen osasuntsu bat disfrutatzekoa bateragarri egiteko eskubideaz, haize garbia arnasteko eskubideaz, oinezko ibilbideekin bizitza garatzeko eskubideaz... Eztabaidarik gabe, lurralde antolamenduak bere egin beharko lituzkeen oinarriak, ez besterik. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA.

{ asteari zeharka begira } **Xabier Izaga**

Bai, baina...

Asteari zeharka, baina asteko egun bati, gaurkoari, hain justu, artez eta adi begira. Eta gaur Bilbon gaude, ez denok, baina bai asko, herri baten, jendarte baten edo gizabanako kolektibitate baten agerpen sendoa. Aurten motxiladun umeak nabarmendu ditu Sare plataformak, baina aurten ez daude atzo baino okerrago, eta bihar –eta batez ere datorren asteburuan nabaritutako dute– berdintsu segituko dute. Asteon, ordea, sikiera telebistan agertu dira. Egingo nuke nahiago luketela agertu gabe. Agertu beharrik ez izan. Halako batean agertu dira telebistan, eta hunkigarria izan zen, egun batez besterik ez bada ere. Piztutako arreta sumatuta, ETBren bigarren katean ere eman lezakete saioa, azpitoluak jarrita. Iradokizun bat baino ez da.

PPri ez zaio ondo iruditut, ordea –ezta PSEko gazteei ere–. Bada PPkoak Euskal Telebistan ez luketela agertu behar uste duenik, eta uste hori sendo argudiatzen duenik. Gauzak zer diren, eskubide urraketa nabarmen bat justifikatzen dutenek «terrorismoaren deslegitimaziorik eza» ikusi dute ume horien gaineko saioan, baina ez dute ikusi nahi izan eurei egindako keinua.

Bai, saio ona izan zen, baina... nik ere saioak egin zuenaren antzera egingo dut, formari dagokionez eta hedabide publikoa izan gabe. Saio ona, harik eta... «zergatik dago zure aita kartzelan?» galdera agertu zen arte. Izan ere, gai horrek, behin eta berriz esan zuten bezala, beste atal oso bat mereziko luke, bat eta beste ehun, baina ez umeak solaskide direla. Behar beste atal mereziko luke gaiak, baldin haren gaineko zenbait iritzik ez balekarte berekin sumario baten irekiera. Europako eskuin muturrak baino defenditzen ez duen egoeraren gordina agertzeak ez luke inor mindu behar; ezta, horrenbestez, ezer «orekatzeko» premiarik agertu behar ere. Ezin izan baitzuten saihestu, edo ez zuten nahi izan, presoen erantzukizuna nabarmen-

tzea. Egindako delituagatik epaile batek ezarritako zigorra lekutan betetzen ari direnek beren seme-alaben egoera onartezinaren erantzukizuna dutela iradoki baino gehiago egin zuten eta. «Zergatik dago han?». «Hitz egiten duzue horretaz?». «Eta...?». «Eta...?». Zer nahi duzu esatea umeak heldu batek nekez erantzun lezakeen horretaz? Zergatik daude han zehar? Non? Han zehar... oporretan? Litekeen erantzun bat: bidezko uste zutenaren alde, eta zuten gehiena galduta, hartu zuten konpromisoagatik. Hori entzun nahi zenuen haur horien ahotik, edo akaso terrorista doilorrak direla eta lotsatu egiten direla beren gurasoez?

Nik uste dut harro daudela, eta hala behar duela izan. Ez ETakoak, independentistak edo sozialistak izateagatik, beren maitasun osoa ahal duten moduan,

«Zergatik dago han?», «Hitz egiten duzue horretaz?», «Eta...?», «Eta...?». Zer nahi duzu esatea umeak heldu batek nekez erantzun lezakeen horretaz?

modu desesperatuan, erakusten dieten gurasoak direlako baizik.

EAJk eta beste batzuek zergatik ez duten Bilbora deitu, beraiek jakingo dute, baina ez da egia ezker abertzalearen ekitaldia dela. Bilbora etortzea ez da ezker abertzalearekin bat etortzea, ezta preso politikoen ideologiarekin ere. Guztien eskubide guztiak eskatzen dituen herri baten adierazpide nabarmena baino ez. Beste batzuek zigorgabeei eskatzen ez dietena eskatzen diete presoei. Hala ere, gaur Bilbon alderdi horietako jarraitzaile ez gutxi izango dira. Ongi etorri denak. Bide batez, herri proiektu batean sinisten badugu, proiektu horrek desberdinen artekoa izan behar duela argi izan behar genuke, eta eskubideen defentsa denon topagunea balitz, ez litzateke abiapuntu makala. •

GUREARBASOAK.EUS

Arbasoei izena eta abizena jartzeko tresna, 128 edo 256 abizen arte

Baserri askotan topa daitezke familiaren arma-
rriak. Etxe asko-
tako paretetan
ere badaude, ko-
adrotan txukun jasoak. Garai
batean ohikoagoa zen akaso.
Baina egunotan ere familia
gehienetan izaten da genealo-
gian interesa duen baten bat,
familiaren abizenetatik tiraka
hamarkadetan eta mendeetan
atzera joan eta arbasoen berri
jakitea maite duen baten bat.
Hain justu, ikerketa genealogi-
koak eskaintzen dituen web-
gunea da Gurearbasoak.eus,
duela bi urte pasatxo Jabier
Perezek martxan jarritakoa.

Perez EHuko Arkitektura
Saileko irakaslea eta ikertzai-
lea da eta, hain justu, ikerketa-
ren eskutik iritsi da euskal on-
darearen baitara. «Nire alorra
adierazpen grafikoa da alde
batetik, eta, bestetik, eraikita-
ko ondarea. Horren baitan, ni-
re espezialitatea XVI. eta XVII
mendeetako eraikinak dira,
bai zibilak eta baita elizarenak
ere. Ikerketa horiek egiteko as-

kotan beharrezkoa izaten da
eraikinaren jabegoa zuen fa-
miliaren genealogia pixka bat
ezagutzea. Izan ere, ondasu-
nak maiorazkoaren loturaz pa-
satzen ziren aitarengatik se-
mearengana eta nire
ikerketetan egokitu zait horre-
lako kasuak aztertu behar iza-
tea. Beraz, tresna horiek men-
deratzen nituen, artxiboetan
ikerketa egitea dakarren pro-
zedura menderatzen nuen.
Okurritu zitzaidan familiako
kide batzuei ikerketa genealo-
giko bana oparitzea eta horre-
la hasi nintzen honetan».


 **JENDARTEA** / amagoia.muji@gaurb8.info

Leinuak pisu garrantzitsua izan du euskal jendartean, bai
maiorazko kontuak tarteko eta baita sozialki ere.
Garaiotan indibidualismoaren haizeak indartsuagoak
izanagatik, badira genealogia maite dutenak, nondik
datozen jakiteko grina dutenak. Ikerketa genealogikoak
eskaintzen ditu Gurearbasoak.eus webguneak.

Beheko irudian,
Gurearbasoak.eus
webgunearen
aurkezpeneko irudia.
Banakako ikerketa
genealogiko bat ikus
daiteke bertan, 128
abizenekin. GAUR8

Horiek egin ondoren, inguru-
ko jendea interesatzen hasi
omen zen, hau eta bestea galde-
tzen. Eta hasieran horrelako as-
morik ez bazuen ere, Perezek
Gurearbasoak.eus webgunea
atundu du, norbere arbasoei ize-
na eta abizenak jartzeko tresna.
«Betidanik gustatu izan zait
armarrien sinbologia, eta ho-
rren inguruan euskaraz ape-
nas dagoen ezer, genealogia-
ren ikerketan bezala. Eta
jendeak interesa zuela ikusita,
informazio hori euskaraz
emateko aukerak tentatu egin
ninduen. Hor hasi zen dena».

XIX. mendera bitartean, ge-
nealogiak funtsezko tokia izan
zuen euskal tradizioaren ba-
rruan. «Batzuetan pentsatzen
dugu genealogiarena noblezia-
ren kontua zela. Egia da, azke-
nean, ondasun gehien beraiek
zeukatela eta, gainera, beraien
artean ezkontzen zirela. Eta
ondasun horiek guztiak kude-
atzeko ezinbestekoa zen maio-
razkoko lotura ezartzea, XIX.
mendera arte horrek ziurta-
tzen baitzuen ondasun hori ez
zela banatuko. Baina hori ez
zen bakarrik nobleen kontua,
baserritarrek ere bazeukaten.
Eta baserritarrek oso presente
zeukaten familiarekiko eta lei-
nuarekiko erreferentzia hori.
XVI., XVII. eta XVIII. mende-
tan zehar gizarte osoan bana-
tuta zegoen leinuarekiko erre-
ferentzia hori. Nolabait,
gizabanakoaren kontzientzia
leinuan oinarritzen zen. Gero,
XX. mendean, indibidualis-
moa garatu zen gehiago eta
gauza batzuk aldatu egin zi-
ren. Baina garai batean garran-
tzitsua zen nondik gentozen
jakitea, bai herentzia kontue-



tarako eta baita sozialki ere, leinuak eta familiak pisua zeukatelako».

Garai bateko kaparetasun frogak ekarri ditu gogora Perezek, derrigor egin beharrekoak. «Herri batetik bestera bizitzera pasatu nahi bazuten, adibidez, bertako jatorria zutela frogatu behar zuten. Horretarako auzi moduko bat egiten zen, lekuko eta guzti, eta familia horren jatorria frogatzen zen. Oso barneratuta zeukaten leinuaren zentzua. Eta armarriak ez daude bakarrik jauregietan, baserri askotan ere badaude».

128 ETA 256 ABIZEN ARTEAN

Euskal ondareari eta genealogiari tiraka jarri du martxan aipatu webgunea, ikerketa genealogikoa eskaintzen duen tokia. Bertan, hiru zerbitzu mota eskaintzen dira. Lehena, banakako ikerketa genealogikoa, 128 abizen arte. Genogramaren lehen pertsonatik abiatu eta sei belaunaldi atzera.

Bigarrena, bikotearen ikerketa genealogikoa. Kide bakoitzetik abiatu eta sei belaunaldi atzera, kide bakoitzaren 128 abizen ezagutu arte. Hartara, bikotearen seme-alabek bere lehen 256 abizenak ezagutuko dituzte. 1750. urte inguruan jaiotako arbasoak arte egiten da atzera ikerketa horrekin.

«Gainera, bai aukera batean zein bestean abizenen adarretatik atzera egiten dugu jaiotza agiri antzinena topatu arte. Askotan XVI. mendean jaiotako arbasoak arte. Horrelakoe-tan pertsonaia horien inguruko dokumentuak aurkitzen saiatzen gara, eta, topatuz gero, erreferentziak txertatzen ditugu genograman», zehaztu du ikertzaileak. Zerbitzuaren kostua 300 eta 550 euro tartekoa da, nahiz eta kasuan-kasuan aldatu egin daitekeen.



Lerroon gainean, Jabier Perez, proiektuaren arduraduna.
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Eta, hirugarrena, ikerketa espezifikoa. Zuhaitz genealogikoa egiten hasi eta bidean dokumentu interesgarriak topa daitezke. Abizen horren ikerketan sakontzeko aukera eta interesgarriak izan daitezkeen garai hartako dokumentuen transkripzioa ere eskaintzen du Perezek; kaparetasun frogak, ezkontza hitzarmenak, testamentuak, auziak...

Ikerketa hasteko, gutxienez ondokoa behar izaten da: ize-

na eta bi abizen, jaiotzaren data eta protagonista jaio zen herria. Eta hortik tiraka-tiraka, sei belaunaldi atzera egiteko modua dauka ikertzaileak, ordenagailuaren aurretik mugitu gabe.

«Lehen zatian Erregistro Zibilaren bitartez egiten da bilaketa. Erregistro Zibila 1870. urtean sortu zen hemen. Hortik lehenagoko guztia elizarena da eta Elizako Artxibategian dago. Arabako, Bizkaiko eta Gi-

puzkoako kasuan, izena, bi abizen, urte tarte bat eta udal-erri bat edukita, bilaketa nahi-ko zehatz egin daiteke», agertu du Perezek.

Bere esanean, bilaketa horiek guztiak ordenagailuaren aurretik mugitu gabe egin daitezke, nahiz eta jende askok uste izan artxibo batetik bestera ero moduan ibili beharra dagoela. «Duela urte batzuk arte horrela izaten zen hemen eta oraindik toki askotan horrela izaten da. Horregatik dauka jendeak pertzepzio hori».

Perez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako artxiboetan bar-na ibiltzen da, ez hortik apartekoetan. «Nik ez dut eskaintzen Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko aukera. Nafarroan, ikerketa hori artxibategian bertan egin behar da eta baldintzak ez dira oso eros-ak. Hiru hilabeteen lau bila-keta bakarrik egin ditzakezu eta prozedura nahiko korapi-

XVI. MENDETIK GAUR ARTE, 65.000 ARBASO

«Askotan lehen abizenarekin geratzen gara, baina ez daukagu horretatik gainontzeko guztietatik baino gehiago. Hori baino askoz adar gehiago ditugu eta guztiak dira gure-gureak. Eta adar asko dira. Pentsa, XVI. mendera bidaiatzeko aukera izango bazenu –adibidez 1550. urtera– eta bidean zure arbaso guztiak bisitatu nahiko bazenitu, 65.000 pertsona bisitatu beharko zenituzke. Hori da 16-17 belaunaldik ematen duten datua».

Kalkulatzen da garai hartan –eta estimazioak baino ez dira– Gipuzkoan 60.000 lagun bizi zirela, eta Bizkaian ere antzeko. «Horrek esan nahi du Euskal Herrian askok ditugula arbaso komunak segur aski. Eta ikertzen hasiz gero, ezustekoak hartuko genituzke». Jabier Perezi behin baino gehiagotan gertatu omen zaio ikerketa genealogiko desberdinak egiten aritu eta haien artean lotuta daudela konturatzea.


latsua da. Ipar Euskal Herriaren kasuan, badago digitalizatutako datu basea. Era berean, jaiotza, ezkontza eta heriotza liburu originalak ere digitalizatuta daude, edonork topatzeko moduan. Baina ez dago bilaketa zehatz egiteko bilatzailerik eta korapilatsuagoa da kontua», agertu du iker-tzaileak.

Behin ikerketa amaituta, etxera bidaltzen du paper formatuan. «Ikerketa egiterakoan agertzen diren dokumentuen erreferentziak ere txertatzen ditut; auziak, herentziak... Adibidez, Urdangarin famatua jatorriz ataundarra da eta bere arbaso batek auzi bat izan zuen 1660. urtean. Garizuma garaian karta-jokoan zebilen tabernan eta kartzelan sartu zuten. Zeharka, horrelako kontu asko agertzen dira».

EZ AUERRERA ETA EZ ATZERA

Batzuetan, ikerketa genealogikoa ez aurrera ez atzera geratzen da, trabatuta. «Jende asko hasten da ikerketa egiten eta une batean ez aurrera ez atzera geratzen da. Horrelako komentario asko jasotzen ditut nik webgunean. Grafia asko aldatzen da garaiz garai. Adibidez, denboran gero eta atzerago joan, ‘i’ latindarra gutxiago erabiltzen da eta grekoa gehiago. Adibidez, ‘Imaz’ abizena XVII. mendean ez duzu topatuko horrela idatzita, ‘i’ grekoarekin baizik, ‘Ymaz’, alegia. Edo, adibidez, ‘Mujika’. XVIII. eta XIX. mendean azaldu daiteke ‘g’-rekin edo ‘j’-rekin. Baina geroz eta atzeago joan, zailago. Lehenagoko garaietan beti ‘x’-rekin agertzen da, ‘Muxica’ gehienetan».

Ibiliaren ibiliaz, Perez trabatuta dago horrelako ikerketetan. Bada beste zailtasun bat ere, oso bistakoa. Artxiboetan




Juan Aranburu eta Maria Juaniz Axarrestaren semeen kaperatasun frogak, Ataungo Justiziaren aurrean. 1711. urtekoak dira. ATAUNGO UDAL ARTXIBO

digitalizatuta dauden dokumentuak originalak dira eta grafiak ulertzea ez da batere samurra izaten. «Ez dira ulertzen errazak. Askok aritu beharra dago tankera hartzeko», esan du ikertzaileak.

Bada kontuan hartzeko beste datu bat: artxibo digitalen artxibo originalak zeuden bezala jasotzen dituzte, akatsak baldin badaude, akats eta guzti. «Esaterako, garaiko eskribauak ‘Muxica’ jarri beharrean ‘Murrিকা’ jarri bazuen,

Lehen zatian Erregistro Zibilaren bitartez egiten da bilaketa. Erregistro Zibila 1870. urtean sortu zen hemen. Hortik lehenagoko guztia elizarena da eta Elizako Artxibategian dago

«Gertatu izan zait aita ezezaguna zela aurkitzea. Kasu horietan, adar bat hutsik utzi eta beste adarrarekin segitzen dut. Batzuetan kolpea izaten da eskatzailearentzat»



artxibo digitalean ere horrelaxe agertzen da, nahiz eta bistakoa izan akats bat izan zela. Adibidez, asko gertatzen da anai-arreben artean abizen berdina modu desberdinean jasoa izatea».

Batzuetan, baina, ikerketa trabatu egiten da puntu batean, eta ezin aurrera segitu. «Gertatu izan zait aita ezezaguna zela aurkitzea. Kasu horietan, adar bat hutsik geratzen da eta beste adarrarekin segitzen dut. Batzuetan kolpea izaten da. Adibidez, sekulako interesa eta ilusioa zuen pertsona bat etorri zitzaidan bere ikerketa genealogikoa eskatzera. Segituan ekarri zidan informazioa, eta, ikertzen hasita, jakin zuen bere amona umezurtza zela. Oso ukituta geratu zen, ez zekielako ezer. Fraisoroko umeak, adibidez, dezente topatu ditut. Ume horien arbasoetara iristea ezi-

nezkoa da. Izenak eta abizenak mojek jartzen zizkieten, edozein modutara gainera. Oso esanguratsua den abizen bat topatu nuen behin: ‘Inor-be’».

Izan ere, ikerketa egitea nahiko zientifikoa izan daitekeen arren, genealogiak asko dauka emozionaletik. Hartara, istorio gozoak eta gaziak topatzea egokitu zaio Perezi. «Lasa batek ikerketa egiteko eskatu zidan. Beasaingo Astigarreta auzoan bada Lasa etxe bat –orain paretak baino ez dira geratzen– eta ikerketa eskatu zidanari XVI. mendeko testamentu bat eman nion, garaian Juan Lasak osatua, bere arbasoa zena. Bertan zehatz agertzen da uzten duen ondasuna, ardiak, baserriko tresnak... Oso une polita izan zen ikerketa eskatu zidanari testamentu hura eman ahal izatea».



Jon URBE | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

INORA IRITSI BEHARRIK EZ BAGENU

Hotzak ezpainak zartatzen ditu eta sudurra gogortu. Traba atsegina egiten du hotzak tamainan, aurpegia kolpatzen duenean, bizkortu egiten zaitu, arnasa freskatu eta berritu. Elurrak, berriz, ingurua argitzeko gaitasuna dauka. Magia dirudi. Lehen malutak erortzerako, artean zuritzeko denborarik izan ez duenean ere, begiak uzkurrazten dizkizu elurrak, dena argiago erakusten duelako. Paisaia dotorea dotoreagotu eta zatarra edertu egiten du elurrak. Horretan nahiko justua da.

Baina iritsi beharrak eta egin beharrak agintzen dute egunotan. Horregatik, neguak berezko dituenak traba eta arazo bihurtzen zaizkigu. Makurtu eta gurpiletara begira jarri behar izaten dugu. Burua altxatzeko aukera bagenu, inora iritsi beharrik gabeko lasaitasuna izateko aukera bagenu, patxada eta edertasuna baino ez genuke ikusiko inguru elurtuan. Eta epelerako bidea lasai hartu ahal izango genuke, hotzaz tamainan gozatu eta gero. amagoia.mujika@gaur8.info

iRRITZA:



IRAGANARI HAUTSA KENTZEN

Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Proiektors ekimeneko Aitor Alberdi, Etor Larrañaga eta Jesus Mari Agirre hainbat ganbara edo tiraderatan ahaztuta dauden etxeko pelikula eta proiektore zaharrak bildu eta konpontzeaz arduratzen dira, ondoren bildutako materialarekin erakusketak atontzeko. Etxeko pelikula zaharrak erreproduzitzen dituzte erakusketotan, iragana eta orainaren arteko zubia eraikiz.

Zeluloidezko 8 mm-ko pelikula Super 8 proiektorearen bobinan harilkatu, proiektorea martxan jarri, eta makinaren zaratarekin batera irudian ageri dira Leintz Gatzagako antzinako kaleak. Orain etxeak dauden tokian, gaudu-larreak egon ziren behin. Ikusle batek bere burua ikusi du iruditan, gazte zendu zen arrebarekin dantzan. Beste batek, publikoko gazteenak, jendearen janzkerari so egin dio: a ze piura zeukaten garai bateko herrikideek!

Gatzagarrek duela hiru urte Proiektorsek sortutako "Apodaka" film laburrean gazte ikusi zituzten bai beraien buruak bai aitona-amonak bai herriko kaleak. Zeluloidearen usainak eta makinaren zaratak Leintz Gatzagako parrokia hartu zuten.

Leintz Gatzagako "Hustu ganbarak" ekimenaren bueltan, Antonio Fernandez Apodakaren pelikulak aurkitu zituzten Aitor Alberdi bergararrak eta Ander Larrañaga gatzagararrak, eta "Apodaka" izeneko film laburra sortu zuten erreskatatutako irudiekin. Herriko elizan proiektatu zen, eta harrera ona eman zioten gatzagarrek. Alberdik historia du zaletasun, eta irudizko dokumentu zaharren bila jarraitu zuen geroztik. Geroxeago, Jesus Mari Agirre



eibartarra batu zitzaion, proiektore zaharrak konpontzen artista dena. «Bere zaletasuna eta nirea batuta, eta 'Apodaka'-k izan zuen harrera ikusita, erabaki genuen aurrera jarraitzea ekintza honekin», dio Alberdik.

Aitor Alberdik kontatu du urteetan pilatu zituzten proiektore eta filmekin erakusketa bat sortzea erabaki zutela, «jendearen eta udalen» arreta pizteko xedez. Hor sortu zen Proiektors, eta hirugarren hanka batu zen ekimenera, Etor Larrañaga.

Horrela, Aitor Alberdi eta Etor Larrañaga bergarrek eta Jesus Mari Agirre eibartarrak Proiektors osatu zuten, aurkitu eta konpondutako proiektore-

Goiko argazkian, Proiektors izeneko egitasmoaren bultzatzaileak. Zutik, ezker-eskuin, Aitor Alberdi eta Etor Larrañaga bergararrak. Lehen planoan, eserita, Jesus Maria Agirre eibartarra.
Virginia ARAKISTAIN ARIZNABARRETA

ak baliatuta familiek ganbaretan erreproduzitu ezinik hautseztatuta dituzten zeluloidezko filmak berreskuratzea helburu duen ekimena.

Aurkitutako proiektoreak bide ezberdinetatik lortu dituztela dio Aitor Alberdik: «Batzuk elizetan aurkitu ditugu, beste batzuk eskoletan edo etxetako ganbaretan». Proiektoreak moneiatzen maisua da Jesus Mari Agirre. Etor Larrañagak dio taldeko «altxorra» dela: «Bere funtzioa oso garrantzitsua da, makinista moduko bat da; hau da, gure erakusketa martxan jartzen du, eta, era berean, erakusten ditugun makinak konpontzen ditu». Agirreren artisa-lana ederki osatzen du binomio

bergararrak. Proiektua bultzatu, mugitu eta garatzen dute. «Ekoizpen artistikoa ere egiten dugu: erakusketaren diseinua eta irudi artistikoa pentsatzen ditugu», dio Larrañagak.




Erabilera domestikoko proiektoreen ahanztura ekarri zuten BetaMax eta VHS sistemen garapenak, eta, hortaz, zeluloidezko pelikulak ezin dira erreproduzitu antzinako proiektore barik. «Bat-batean mozketak ebolutibo bat gertatu zen, eta hamar urte baino gutxiagoan proiektoreak eta garai bateko kamerak gure eskuetatik desagertu ziren», esplikatu du Larrañagak.

Orain, hogeita hamar urte geroago, Proiektors informazio domestiko eta anonimo horri bide ematen ari da, Jesus Mari Agirrek berreskuratutako proiektoreak baliatuta. «Lortu dugu zeluloidetik digitalera pasatzea. Bidea traketsa da, gu esploratzaile modukoak gara: pelikulak dituen jendea aurkitzen dugu, eta kontziente egiten ditugu beraien etxean gordeta dagoen horrek jendarte batendako daukan balioaz», esan du Etor Larrañagak. Bide horretan, Euskal Filmotekaren babesa dute, pelikulak bertara jasotzen baitituzte.

Iragan urteko ekainean, Plentziako Mikrofilm Short Festival jaialdiak deituta erakusketa eratu zuten, eta Plentziako udalarekin elkarlanean deialdi bat antolatu zuten herritarrek ganbaretan gordeta zituzten filmak jaso eta ondoren festibalean proiektatzeko. Hortik aurrera hasi zen Proiektors garatzen. «Jendeak erakusketa ikusi zutenean jakin zuten ganorazko lana zela eta pelikularen bat zuela esatera hurbildu ziren. Hor hasi ginen film-sortak jasotzen», dio Aitor Alberdik. Familia batek hamar pelikula eman zituen, beste batek hogeitak. Orotara, Proiektorsek bere ibilbide guztian ia 300 pelikula eta 50 proiektore inguru bildu ditu.

OROIMENEN ISLAK

Proiektorsek hiruzpalau eguneko erakusketak antolatzen ditu normalean, zeintzuetan proiektore desberdinak ikusgarri egoten diren. Alabaina, egun



handi bat izan ohi da erakusketaren barruan, guztietan dinamiko eta sentikorrena. Egun horretan, ateak itxi, argiak itzali, proiektoreak piztu eta irudiak bonbardatzean ezein ikusle geratzen da hotz.

Proiektzioak ekiterakoan sentimendu ugari azaleratzen direla diote bergarrek. «Jendeari zerbait mugitzen zaio barruan. Sentimenduak sortzen dira, eta horien gainean daude heriotza, aldaketak, sorrerak», esan du Alberdik. «Irudi hauek ikusi eta gero, ez gara berdinak izango. Nik ez badut ezagutu garai hura, ikus-entzunezko hau ikusi ondoren pertsona osatuagoa naiz, badakit ibiltzen ditudan kale horiek orain urte batzuk beste era batera egituratuta zeudela», dio Larrañagak.

Iaz, Tabakalerako Elias Querejeta Zine Eskolaren inauguraziorako antolatutako erakusketaren baitan emanaldi dinamikoa muntatu zuen Proiektorsek, zinema eskolak hala eskatuta. Gune analogikoko lau aurpegidun zutabe bateko alde banatan proiektatu zituzten irudiak 16 eta 8mm-ko lau proiektore martxan jarrita, eta ikusleek zutabearen bueltan kurritu zituzten irudien islak. Etor Larrañagaren esanetan, «karrusel» moduko bat sortzea zen ideia: «Lehengozinearen xarma bat zen molestatzeko. Gaur egun dena oso goitik proiektatzen digute, pertsona bat altxatzen bada ez du eragiten irudian, lehen bai».

Baina Proiektorsaren erakusketak ez dira irudizkoak soilik. Ikusi, usaindu, ukitu eta entzun egiten dira. Pelikula bobinan biratzen hasten denean, tentsioa sortzen da zeluloidea erreko ote den beldurrez, usaindu egiten da frikzioa, makineria zarataka hasten da. «Horrek guztiak atmosfera berezi bat sortzen du. Ez da gaur egungo *play-a*. Gauzak moztu, apurtu egiten dira», dio Larrañagak. Akatsaren aldarrikapena artelan kasik perfektua izan daiteke.

“Apodaka” film laburrean iragana orainarekin nahastu zuen Proiektorsek, antzinako irudiei musika garaikidea jantzita; eta horrela diraute, denboralero hauskorrean trapezista.

Oroitzapenak ia ukigarri agertzen dira proiektzioetan. Irudiek hartzailearengan sortzen duen inpaktua oso indartsua dela azaldu dute Proiektorsekoek, argazki estatikoetan ikustera ohituta gauden pertsonak mugimenduan ikusteak «bizitza gehitzen diolako bizirik dagoenari».

Etxeko filmak jasotzen ditu Proiektorseko hirukoteak, baina, etxekoak izanagatik, ez daude historiaz kamuts. «Jaso dezakegu irudi bat non agertzen den familia bat bazkaltzen, eta agian lehen begiradan ez dauka interes orokorrik; bai, ordea, bazkaria filmatzen ari den pertsona hori balkoira ateratzen bada eta herriaren plano bat azaltzen bada, hor ikus dezakegu nola aldatu diren kaleak», dio Larrañagak. Eta Aitor Alberdik gehitu du: «Agian, gainera, familia bazkari horretan ikus ditzakegu nolakoak ziren garai bateko ohiturak, eta oraingoekin alderatu».

Hala ere, jaso dituzte baita eszena esanguratsu batzuk, etxeko grabazio-tatik harago doazenak. Esaterako, diktaturaren garaiko pertsona garrantzitsu batek Euskal Herrira egindako bisitaren irudiak, non ikusten den norbaitek pertsonaia oso gertutik grabatzea lortu zuela. Horrez gain, Pablo VI.a Aita Santua agertzen den 60ko hamarkadako filmazio bat ere badaukate. Alabaina, dokumentu horiekin tentuz ibili behar dela kontziente da hirukotea.

Proiektorsen erakusketak ikusten ditzutenen artean, adinak eragin handia dauka irudiak jasotzerako moduan. Zaharrak gogoratu egiten du, nostalgiaz oroitzen ditu behin ibilitako kale-

ak eta lagun zituen pertsonak. Gazteak ikasi egiten du, kuriositatea eragiten dio.

AURRERA BEGIRA


«Hazia bota dugu, loratzen hasi da, baina loraldia indartsuagoa izatea nahi dugu», esan du Larrañagak. Proiektorsekoak beraien sorkuntzak ezagutarazteko egarri dira. Pelikula gehiago topatzen eta erakusketa zabaltzen jarraitzeko grina daukate, eta zinema festibaletako osagarri moduan edo

Proiektorsen erakusketak ez dira irudizkoak soilik. Ikusi, usaindu, ukitu eta entzun egiten dira. Pelikula bobina biratzen hasten denean, tentsioa sortzen da zeluloidea erreko ote den beldurrez, usaindu egiten da frikzioa, makina zarataka hasten da. Esperientzia berezia da.
GAUR8

ikus-entzunezkoekin lotura duten edozein ekimenetan parte hartzeko prest daude. Horretarako, ateak jotzen jarraitzeko asmoa agertu du hirukoteak.

Badituzte ideia batzuk buruan bueltatuta, aise bobinen bueltan ikusi nahiko lituzketenak. Esaterako, Eibarri buruzko dokumental bat daukate eskuarte-an, baita «Turnoka» fikziozko film laburra ere, jada edizio lanetan daukatena. «Turnoka»-rako, Proiektorseko taldera Asier eta Eneko Balzategi DJ eta musika sortzaileak batu dira, baita kamerari eta irudi artistiko lanak egin dituen Ander Larrañaga ere. Film laburra udaberriko prest izatea espero dute.

Proiektorsek hazten jarraitzeko proiektore eta zeluloidezko filmen bilketaren beharra dauka, baita erakusketak antolatzeke kontratazioena ere. Horregatik, deialdia egin diete etxean iragan zati bat daukatenei zein erakusketa bere herrira eraman nahi dutenei, beraiekin harremanetan jartzeko proiektors@gmail.com helbidean.



Proiektzioak ekiterakoan sentimendu ugari azaleratzen direla diote bultzatzaileek. «Jendeari zerbaite mugitzen zaio barruan. Sentimenduak sortzen dira, eta horien gainean daude heriotza, aldaketak, sorrerak...»

Adinak eragin handia dauka irudiak jasotzerako moduan. Zaharrak gogoratu egiten du, nostalgiaz oroitzen ditu behin ibilitako kaleak eta lagun zituen pertsonak. Gazteak ikasi egiten du, kuriositatea eragiten dio



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Diru gehiago behar da Hezkuntzan

Ergel eta gaixo nahi dute jendea. Horregatik inbertitzen dute diru gutxi Osasunean eta Hezkuntzan». Gure pentsioak ordaintzeko dirua izango ote den da lagunarteko hausnarketa-
ren abiapuntua: egon ba omen dago, nola banatzen den kontua, Espainiako Errege etxea eta atal militarra defizitarioak diren arren ez dela murrizketarik egiten... ezer berririk ez!

Datueta jo dugu. Frantziako Estatuak 2015ean bere barne produktu gordinaren %5,5 bideratu zuen Hezkuntzara. Espainiakoak, berriz, %4,1. Europan, atzetik, Errumania (%3,1), Irlanda (%3,7) eta Bulgaria eta Italia (%4) zituen, soilik. Urte berean, Danimarkak %7 gastatu zuen; Suediak, %6,5; Belgikak, %6,4; Finlandiak, %6,2; Estoniak, %6,1, eta, Letoniak eta Portugalek, %6.

Eta euskaldunok? EAEn, 2015ean, barne produktu gordinaren %3,7 gastatu zen; Nafarroan, %3,2. Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoko datuak Frantziakoetatik bereizezinak dira, artean. Herri gisa normaltzeko dugun bide luzearen beste adierazle bat.

Agintariek beren politiketan eta aurrekontuetan Hezkuntzari gastu trataera ez, baizik eta inbertsio trataera ematen ez dioten bitartean jai dugu. Ekonomian aditua den jende ugari aspaldi esana du Hezkuntzan inbertitzen den euro bakoitzeko etorkizuneko jendartearentzat zortzi euroko irabazia izango dela.

Bestalde, “Hezkuntza=osasun handiagoa+biziraupen handiagoa” ekua-zioa frogatu dute ikerketek. Beraz, begiratu ekonomiaren ikuspuntutik, bizi kalitatearenetik, begiratu aukera berdintasuna eskaintzetik, hartu kon-tuan jendea pobreziatik ateratzeko

behar genukeen ahalegina eta abar, eta ikusiko dugu Hezkuntza dela guztiei erantzuna emateko giltzetako bat. Ikerketek mahai gainean ipini dute dagoeneko zein den gaur egungo jendarteak dituen gaitz sakonenetako batzuen soluziobidea: Hezkuntzan diru gehiago inbertitzea.

Gurera etorri, zoritxarrez, gutxienetan entzuten ditugu eragileak diru gehiago eskatzen Hezkuntzarako. Gehiagotan jarduten dute esleitutako diru horretatik sare bakoitzari zenbat bideratu zaion kalkulatzen. Eta nago gehiegixetan norberarentzat diru gehiago eskatzeko formula aldamenekoari kentzea izaten dela. Beste behin, elkar hartu eta indarrak batu beharrean Euskal Herriaren beharrei egokiago erantzungo dion hezkuntza sistema sendoagoa aldarrikatzeko, aldentzen gaituenean sakontzen dugu. Eta hor pizturik eta

bizi-bizirik mantentzen dugu “publi-ko/pribatu” eztabaida, esaterako.

Hezkuntzari esleitutako diruak kontrol herritarra, gardena eta zorrotza behar du, dudarik ez. Ildo horretan, proposamen interesgarriak egin dira azken urteetan, Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa eta Hik Hasik egin zuena, adibidez.

Egin dezagun herri gisa koska bat aurrera. Zenbat eta diru gehiago inbertitu Hezkuntzan, orduan eta jendarte osasuntsuagoa, bizi kalitate handiagoa, ekitatiboagoa eta bidezkoagoa. Ez badugu jende ergel eta gaixoa nahi diru gehiago behar da, Unescoren arabera barne produktu gordinaren %6 da desiragarria. Horretan behar genuke ados.

Eska dezagun diru gehiago herri honen hezkuntza beharrei erantzuten dieten heziguneentzat. Nonbaitetik kendu behar bada, gakoa hor dago, jakingo genuke nondik! •



Hezkuntzara bideratzen den dirua zer da, gastua edo inbertsioa?

Juan Carlos RUIZ | ARGAKI PRESS

{ koaderno } **Laura Mintegi**

Berbarik gabeko aldarria

1

8/98 auziagatik kartzelatik atera den Joxean Etxeberrria azken presoak esan du, espetxetik atera eta lehen egunean, «preso zaudenean, oso mingarria da entzutea mobilizazioek ez dutela ezertarako balio», eta zer pentsatua ematen du esaldiak.

Kartzelan 11 urte eta 3 hilabete eman ditu Etxeberrriak, horietarik 10 urte bakartze ziegan, eta azken biak –gelakidea irten zenetik– bakarrik. Joxean Etxeberrriak ere izan du pentsatzeko beta, eta atera duen konklusioa da presoan auzirako konponbidea ez dela etorriko erakundeetatik, baizik eta gizarteak emango dituen urratsetatik. Eta urrats garrantzitsua mobilizazioa da, areago urtarrileko urteroko mobilizazioa.

Gaur milaka eta milaka pertsona mobilizatuko gara Bilboko kaleetan, eta lehen ilaran egongo dira preso daudenen seme-alabak, senitartekoak, etxeak. Hau da, inoiz deliturik egin gabe, inoiz epaituak izan gabe, le-galki inoiz zigortuak izan gabe, zigorra jasotzen ari direnak, egunez egun, urtez urte.

Estatu espainiarrak 1989ko maiatzean hasi zuen ofizialki dispertsioa, orain 29 urte. 1983an Jose Barrio-nuevo Barne ministroak ZEN plaza diseinatu zuen, eta, ministro izateari utzi eta hurrengo urtean, 1989ko maiatzaren 4an, Enrique

Mugica Herzog Justizia ministroak iragarri zuen espetxe politika berria jarriko zuela martxan, ZEN planean aurreikusten zen moduan. Herrera de la Mancha eta Alcala Mecotik atera zituzten euskal preso guztiak eta 73 kartzela ezberdinetara eraman zituzten. Gaur egun, %86,6 daude 400-1.100 kilometrora, eta bakarrik %13,39 daude 190-400 kilometrora. Dispertsioak indarrean dirau, ZEN planaren helburua (Euskal Herriaren matxinada akabatzea) ez zutelako bete.

Kartzelan lehenengoz hogeitaz bete zituen lehen euskal preso Mitxel Sarasketak esan du noizbait, ordea, ofizialki 1989an iragarri bazen ere, aurretik eman zirela lehen pausuak dispertsioan, 1985ean Herreratik Lan-

graizko kartzelara eraman zituztenean ETA pm-ko buruzagiak, Gobernuaren ustez komeni baitzen “gogorrrak” eta “bigunak” bereiztea.

PSOEn Gobernuak ZEN plana ezarri zuenetik deitoratua izan da dispertsioa, pertsona gutxi hasieran, eta milaka pertsonak azken urteetan. Ematen zuen hitzak agortuta zeudela eta dena esanda zegoela, ikuspuntu politikotik, ikuspuntu juridikotik eta giza eskubideen ikuspuntutik.

Eta esateko ezer apenas gelditzen ez zitzaigunean, orduan, ia berbarik esan gabe, heldu da dispertsioaren aurkako kritika zorrotzena: presoan seme-alaben begiradek eratu dutena, irribarre herabetiz eta malko furtiboz josita.

Haur hauek azaldu dute, inork baino hobeto, nagusiok adierazten jakin izan ez duguna. Kartzelarainoko ordu luzeetan lagunak ikusteko sentitzen genituen po-

Ez dugu atzemango dispertsioaren tamaina, ez badugu sartzen errelatoaren barruan bizipen hauen testigantza. Ez da erruki edo gupida kontua. Irakurketa politikoa egin beharra dago

za eta ilusioa, haur eta gazte batzuek hitzik gabe azaldu dizkigute, guretzat lagunak zirenak beraientzat ama edo aita baitira. Bisitaren ondorengo amorrua eta tristezia, presoan seme-alabek begiraden bidez adierazi dituzte. Buelako bidaietan metatzen genituen inpotentzia eta ezinegona, haragituta ikusi ditugu haurren bisaian.

Onartzen dut hasiera batean ez nuela begi onez ikusi Sareren aurtengo kanpaina, haurrak eta gazteak tartetan. Baina aitortu behar dut inoiz ez dugula atzemango dispertsioaren tamaina, ez badugu sartzen errelatoaren barruan bizipen hauen testigantza. Ez da erruki edo gupida kontua. Irakurketa politikoa egin beharra dago, eta injustizia agerian utzi. •

«Betidanik maite izan dut itsasoa; hara joaten zaren aldiro zerbait berria ikasten duzu»

Marine-
l e n
o m o -
nierra
da Mi-
k e l
Epaltza, arrantzaleen apaiza. Itsasoan zein lurrean itsasandreei zein itsasgizonei gertatzen zaienaz arduratzen da, zeruari haien aldeko otoitza luzatzen badio ere, haien haragizko babesle eta laguntzailea da. Jakinduria handiko gizona, historia askoren iturria, eta Lapurdiko kostan biziki maitatua. Ziburuko auzoa den Zokoa bizi da, eta bere etxearen ondoan aurkitzen da arrantzaleen kapera. Bertako hilerri ttipian dago lurperatua Piarres Larzabal apaiza, idazle eta euskaltzaina, maite bezainbeste miresten duena Epaltzak. Haren hilobiaren aitzinean eskaini dizkigu lehen xehetasunak.

«Lauburua du hor, eguzkiaren bizia, eguzkia baita bizi-tzaren iturri. Piarres Larzabalek Frantziaren alde egin zuen gerra, eta Alemanian, Polonian eta garaiko Txekoslovakian preso eduki zuten naziek, eta 1951. urtean etorri zen hona erretore gisa. Euskaltzalea zen, eta, politikarekin zerikuzirik ez bazuen ere, hastape-netik aterpetzen zituen iheslariak, Baionako katedralean gose greba ere egin zuen haien alde, eta ezin ahan-tzi Hego Euskal Herriko iheslariei laguntza emateko Anai-Artea elkartearen sortzailea ere izan zela. ETA erakundearen lehen hildakoen zeremoniak hemen egiten ziren».

Kapera erakusten hasi zaigu orduan. «Aldarea Telesforo Monzonen anaia Isidro eginarazi zuen; itsasontzi bat da, batela, erakutsi nahi balu be-

zala denak haren barnean goazela».

Lapurdiko Itsas Hegian dago Zokoa, eta biziki auzo ttipia da. «Larzabal hemen zegoen garaian zokotarrek arrantzarekin lotura zuten orobat. Baziren ontziolak, barkuak egiteko, sardinen kontserba fabrika bat ere bai, eta Artha dikerako harri blokeak egiten zituzten langileak; eta haiek denen artean egi-na da kapera hau, horrela nabari zaio itsasoarekiko lotura».

Frantzisko Xabierren zurezko irudi bat agertzen digu gero, eta ondoan Loiolako Inazio-re-na dago, Jesusen Konpainiaren sortzaileak biak, baina ideia eta nortasun desberdinekoak. «Ideia etsaiak zituzten. Ez dakit nola konpontzen ziren elkar, baina Inazio maisu bezala hartzen zuen Frantziskok, eta elkarrekin zerbait handia erai-ki zuten». Goiko parteko aulkietan doinuarekin lotura du-tenak ibiltzen dira. «Altxa Zokoa abesbatza sortu nuen duela hamaika urte, Hondarribian kantatzen egonak gara berriki, eta abesbatzako partaide batzuk orain hasi dira euskara ikasten. Nik kantua-ren inda-rean sinisten dut, ahotik biho-tzera sartzen baita eta herria-rekin kantatzeko gogo-a pizten baitu».

GURASO IHESLARIEN SEME

Azkenik, kaperako kontuak aparte utzi eta berekin lotura zuzena dutenak agertzen hasi zaigu Mikel, bere etxeko salan, konpontzeko daukan aulki ba-ti buruzko historia agertu ondoan, berea kontatzen hasi zaigu. «Aitak eta amak ekarri ninduten mundura; haatik, ez gara gure baitatik sortzen, eta zortzi seme-alaba ekarri zituzten mundura Karmen Solano

eta Juan Manuel Epaltzak Uz-taritze eta Kanbo artean dago-en Haltsu herri ttipian. Iheslariak ziren biak, gerrari ihesi Lapurdira etorriak. Aita Eusko Gudarosteko komandantea zen, eta preso hartu zuten Duesoko kartzelan; ondotik ofizialen arteko truke bat izan zen eta hala atera zen kartzela-tik. Ondorengo historia da gu Iparraldean sortu ginela. Tren-bidea ondoan zegoen, eta oroi-tzen dut iheslari anitz etortzen zirela garai haietan, gure etxe-an beti jendea zegoela; familia handia ginen bestalde. Aita Li-zarrakoa zen, eta ama Lekeitio-koa, baina Mendexan, Deus-tun, Bilbon ahaide anitz geneuzkan».

Txikitako garai haietaz na-gusiki zer oroitzen duen galde-tuta, argi du. «Laborari giroan bizi ginen, eta euskaldunak gi-nen gu, bizkaitarrez hitz egi-ten genuen gure artean. Jaiak, inauteriak, Eguberriak... dena ospakizun bat zen, ez zegoen egoera tristerik; gauza gutxi-rekin ibiltzen ginen alai, eta dena partekatzen genuen elka-rrekin. Elkartasuna, irekidura, kantua, huraxe zen guk edan-dako txikitako esnea».

Haltsun urte batzuk pasa ondoan, Donibane Lohizunera mugitu zen familia. «Lau lehe-nak Haltsun sortu baginen ere, ondorengo laurak Donibane Lohizunen sortuak dira. Aitak beste iheslari batzuekin batera fabrika bat jarri zuen, harekin aterabide bat izan zezaten eus-kal familia anitzek, gehienek ez baitzekiten itzultzerik izan-go zuten, edo ez behintzat noiz. Iheslari guztiek ohikoak dituzten galderak zeuzkaten, baina galderekin ez duzu bizi-tza aurrera ateratzen eta gu-txiago platera betetzen; hone-

MIKEL EPALTZA

ARRANTZALEEN APAIZA

Ziburuko itsasoan sustraitu zitzaizkion zangoak. Apaiztu eta Ameriketara joan zen misiolari, betiere

Euskal Herriarekiko lotura atxikita.

la, lan bat ukaitea Iparraldean kokatzeko irtenbidea zen». Kuriositatea piztu digu lantegiak, eta gaur egun haren arrastorik gelditzen den itauntzea izan da Mikeli kontakizunarekin arnas pixka bat eskaintzeko formula. «Azkar izena zuen fabrikak, Bidarten zegoen, eta plastikozko gailuak egiten zituzten; bertako jendeak ere egiten zuen lan, ez soilik iheslariak. Fabrika hori 1968ra arte egon zen aktibitatean, baina lege berriak sortu zituen Frantziak, inpostuen ordainketak eta halakoak. Lantegi txiki anitzek ateak itxi behar izan zituzten, ez baitzuten irabazi nahikorik haiek ordaintzeko. Orduan itzuli ziren gurasoak bestaldera, Bilbora».

ITSASOA ETA APAIZGOA, GRINA

Baina Mikel ez zen itzuli, itsasoa zuen bere pasio lehena, eta Donibane Lohizune eta Ziburuko uretan sustraitu zitzaizkion zangoak; halere, hurbilean zeukan itsasoa zeharkatu eta urrunago zeuden lurretara joateko enbeia ere piztu zitzaion, apaiz bihurtuta. «15 urterekin, eskola bukatu ondoan, deliberatu nuen apaiz izatea. Hego Amerikara joan nahi nuen, misiolari bezala. Hemen ikusten nituen apaizak, eta mundu pobrego bat ezagutu nahi nuen, zerbitzari izan, ahal nuen hartan laguntza emateko. Ufada berri bat zeterren gainera Latinoamerikatik. 1965. urte inguruaz mintzo naiz, baina han ez zituzten seminaristak nahi, egindako apaizak baizik; beraz, hemen jarraitu nuen formakuntzarekin, Akizen, eta Armadara joateko adinean Antilletara joan nintzen irakasle gisa, Guadalupe. Ia hiru urte pasatu nituen han gazteekin hezitzaile lanak egiten. Jende xume-xu-

IBILBIDEA Haltsun (Lapurdi) sortu zen Mikel Epaltza, «ez baikara gure baitatik sortzen». Aitak, Eusko Gudarosteko komandante lizarratarrak, kartzelatik irtendakoan Ipar Euskal Herrira ihes egin zuen, baita amak ere, Lekeitiotik. Bere grinek, itsasoak eta apaizgoak, alegia, munduan gaindi eramane dute.



mea zen, eta handik izpiritu berri batekin itzuli nintzen, jakinez Eliza moldatzen ahal dela egiazki pobreekin».

Ahala baduela denok dakigu, eskuetan duen guztia egiten duen beste kontu bat da, ordea. «Guk ahal genuen guztia egiten genuen Guadalupekoei laguntzeko. Platano zelai batean ari ginen lanean bertako herritarrekin. Gazteek eskalabotasunaren ondorioak pairatzen zituztela ohartua nengoen, garai ilun haien kutsua hezurretaraino sartua zeukaten, haien arbasoak esklaboak izan zirelako. Ez zuten lurra ukitu nahi, aurreiritziak zeuzkaten horrenganako, lurra eskuekin lantzeak berriro esklabo bihurtuko balitu bezala. Baina lurra dagoen tokian bizitza dago, eta ohartu nintzen

pentsamenduak alda daitezkeela, laguntza egokia eskaintzen baldin bada. Eskuekin lan egiteak ez zituela esklabo egiten ulertu zuten, baizik gauza handia dela, eskuak aske ditugula, ez dugula katerik bertan, askotan kateak buruan dauzkagula. Eta kanaberako azukrea, platanoa... landatzen hasi ziren, eskola tekniko bat sortu genuen bestalde, ofizioak erakusteko».

Han egindakoak eta gertatutakoak gogoan ditu oraino Mikel Epaltzak, baita berari begiak zabaltzen lagundu zion pasarte bat ere. «Oroitzen dut laborari zahar batekin gertatu zitzaidana. Apaiz bat txilintxa jotzen ari zen, eta horrela erran zidan laborari horrek: 'Ikus gizon hori, txilintxa jotzen du ni haren etxera joan

nadin, baina bera ez da nire etxera sekula etorri, zertarako joan behar dut nik harenera?'. Eta hor, barneko dei azkar bat sentitu nuen, egia baita, Eliza non hasten da? Mendi tontorrean, azpian, edo jendeen etxeetan dago? Jesusen mezua, ebanjelioa, hortik doa: bizi zaitezte elkarrekin, egin bidea elkarrekin, eta oinarrian du bakea, elkarrenganako maitasuna, harremanetan sarkontzea, duintasuna, justizia... *Teología de la liberación* ideia- ren barnean zedarritzen dira bide horiek, eta sakratuak bilakatu dira niretzat».

Jesus, Jesus eta Jesus etengabe ageri da Epaltzaren ahoan. «Jesukristorekin lotura handi bat daukat nik», erantzun digu arrapaladan, «ttipidanik datorkit harenganako lotura»,



Argazkiak: Denis LAFITTE

eta hizketaldia moztu diogu zehaztasunen xerka, Jesukristori ikusten dion berezitasuna zein den argi diezagun, handia zergatik den konbentzi gaitzan, edo, behintzat, Jesus zer den; eta lehen kolpea eman digu segidan: «Zer den ez, nor den! Nor!». «Askatzaila da Jesus, askorentzako argia, eta Elizaren gaintetik dagoen erreferentzia bat; xumeki nahiz xeheki aztertu eta ikasi behar da bere ekin-tzetatik hasita. Gaixoentzat, pobreentzat, presoentzat, guztientzat zeukan eskaintza bera, eman eta eman beti. Eta sinestuna bazara ala ez, bada-kizu gizarte, familia edo mundu justu eta zuzen bat sortzeko hark irakatsitako baloreek garrantzia dutela. Erlijioaren mugak gainditzen ditu Jesukristok. Gero, sentimendua dago, eta niretzat su bat bezala da, unibertsalki nozitzen den bihotz kolpe hori, norbait maitatzen duzunean su bat sentitzen baituzu bihotzean, eta nire mugak, oztopoak, loturak askatzen lagundu dit berak, Xalbadorren bertsoan bezala, lotura guzietarik, ez soilik fisikoetatik, ezintasun guztietatik askatzen lagundu nauena».

HEGO AMERIKAKOAK

Antilletatik, Hego Amerikara. «Han, Jesusen ebanjeliotik harago zihoan bide berri bat agertu zen: haurridetasunaren sakramentua, anaitasunarena. Argentinan, Txilen... garai latzak bizi ziren, diktadoreak agertu ziren, herriaren kontrako tiranoak, eta ikusi behar zen haiek kristauak zirela, katolikoak, eta herri osoa ere bai, kontraesan handi bat zegoen hor. Haien artean otso eta bildots zirelako erlijio bereko gizakiak, eta diktadoreek gainera



Erromatik laguntza jasotzen zuten. Eta esperantzaren gako, herriaren askatasuna, edo jendea menpekotasunetik ateratzeko gako handi bat izan zen San Mateoren 25. kapitulu, 'biluzik nengoen eta jantzi ninduzuen, eri nintzen eta bisitan etorri zineten, preso nintzen eta nigana hurbildu zineten'. Haurridetasun horiek dira Askapenaren Teologiak erakusten dituenak, Jesusengana heltzeko egiazko bideak. Bada, Baionako seminarioan nengolarik *Teología de la liberación*-en edukia itzuli nuen, besteek ere ezagut zezaten bide hura.

«Guadalupeko gazteek ez zuten lurra ukitu nahi, aurreiritziak zeuzkaten horrenganako, lurra eskuekin lantzeak berriro esklabo bihurtuko balitu bezala»

Erranen nuke horrek indartu eta handitu gaituela gure kristautasunean».

ELIZAK BAZTERTUA

Elizarekin kritikoa izan da, halere, Mikel, pentsatzen zena erraten zuelako. Justiziazkoa zena defenditzen zuelako apaiz kargutik apartatua ere izan zen garai batean, eta oraino bide egokiak seinaltatzen jarraitzen du. «Elizak bidea dauka egiteko aurretik, gai askorekin; hor daude haurrekin egindako gehiegikeriak, bortxaketak, eta salatzea soilik ez da nahikoa, eragin-

korra izan behar da. Euskal Herrian izpiritualitatea alboratu izan da, eta penaz hartzen dut hori. Niretzat behar-beharrezkoa da bizitzeko, utopiak beharrezkoak dira ere; bakea, justizia eta halako amets borobilak. Izarrekin amestea oso polita da, baina gu ez gara izarretan bizi, eta zerbait lortu nahi baduzu urrats bat eman behar duzu aurrera, herri edo mundu zuzenago bat desira baduzu, hura lortzen saiatu behar duzu, bestearengana iristeko joan egin behar da, eta bide hori elkarrekin egin dezakegu gainera. Horretarako mistika bat behar da, kultura bat, izpiritualitatea. Min hartzen dut Elizaren menpekotasunetik ateratzeko izpiritualitatea bazterrera utzi izanagatik».

«Patxi, gure Patxi» deitzen dio Francisco aita santuari. Gustukoa du. «Ez nuen uste Elizatik halako gizonik jalgi zitekeenik, eskema guztiak apurtzen ditu. Hasteko, aita santu egin zutenean, hotela ordaintzea izan zen bere lehen ekintza, bera denak bezalakoa zela adieraziz. Gazteluan bizi ordez, zapata gorriak jantzi ordez, bere betiko oinetakoekin dabil; jestu anitz egin ditu. Ostegun Santuan bezala, Erromako kartzelara joan zela preso bati oinak garbitzera; presoak, eri daukenak, pobreak, esklaboak eta iheslariak, munduan 60 miloi daudela, haiek denak ditu beti gogoan».

Itsasoa eta apaiz izatea, bi pasioak lotu zituen 1985ean, Itsas Misioaren arduradun izendatu zutenean, eta geroztik buru belarri dabil langintza horretan. Hamar liburu idatzi ditu itsasoa ezagutzera emateko ahaleginean. «Altza mutilak' izena du sailak, eta

arrantzaleen bihotzetan daudenak erakutsi ditut liburuetan. Lurrekoek ez dakite itsasoan zer bizitzen dugun. Ikusten dute arraina, itsasontzia, tresnak... baina gauza gutxi dakite itsasoko bizitzari buruz. Txoriak daki itsasgizona zer den, hara ez dira kamerak iristen, atunak altxatzen direnean eta halakoetan bai, orduan iristen dira, baina hori soilik ez da itsasoko bizitza».

Berriki Taiwanen egon da itsas apostolutzak gonbidaturik, eta han «itsasoaren esklabotasuna salatzen aritu gara, munduko leku askotan jende gehiegi baitago soldatarik jaso gabe ia, itsasoan bizi eta bertan hiltzen».

ITSASOA ETA LURRA

«Itsasoa gure ama da. Baina itsasoa eta lurra gauza berdina dira; lurrik gabe ezin gaitetze bizi, janariarendako ezinbestekoa zaigu noski, baina bertako lore eta landareak ikusten ditugu, arbolak, piztiak, gu barne, ekosistema oso bat dago, eta horrek denak zertarako balio duen ulertzeko kultura beharrezkoa da, gure arbasoak mendi eta itsasoari esker bizi izan direla jakinda. Kultura bizitzaren sehaska dela erraten dut nik, eta ez alderantziz; natura ulertu egin behar da eta burua bertan kokatu behar dugu, hari zerbitzatu, lagundu, hau ez da soilik agrikultura eta akua-kultura, elikadura lortzeko iturri bezala».

Eta txikitako garaietara egin du salto berriro. «Lekei-tiora joaten ginenean ura beti presente egoten zen, erreka bazterrak zirela edo itsasoa zela. Nik betidanik maite izan dut itsasoa; maite ditut itsasgizonak, etengabe aldatzen den mundu bat bezala da,

«Euskal Herriaren nortasunari ere parte handi bat eman dio itsasoak. Itsas hegi guztian 1300. urtetik hona kofradiek eta abarrek bizitzeko modu bat eraiki dute adibidez»

izango dira uhinak, txoriak, edo arrainak, baina itsasora joaten zaren aldi bakoitzean zerbait berria ikasten duzu. Euskal Herriaren nortasunari ere parte handi bat eman dio itsasoak. Itsas hegi guztian 1300. urtetik hona kofradiek eta abarrek bizitzeko modu bat eraiki dute adibidez».


Gu geu ere mistiko samar jarrita, itsaso zabalean bakean izatea posible ote den galdetu diogu Epaltzari, beharbada lurrean ez dagoen zerbait aurkitzen ote den han. «Gizakia dago bakearen gainetik, gerra guztien arduraduna da bera, eta bakerik ez

duen gizakiak ez du bakerik aurkituko itsasoan, hara eramango du gerra».

BAKEAREN ARTISAUEN MEZUA

Euskal Herriko gatazka armatuaren konponbidean, partaidetza zuzena izan du Epaltzak, saiakera askotan ibili da buru belarri, nahiz eta protagonismoen lerroetatik urrundu. Gerra zikina, hildakoak, presoen familiak, denetik ezagutu eta ikusi du berak, eta bakearen artisauen mezua luzatu eta hedatzen dabil orain, «ETak eman duen urratsa erraldoia baita. Besteari itxaron gabe bakerako erabakia hartzea izugarria da,

esanahi handia du». Eta konponbidean zein ondorioen arloan Elizak ere laguntza eskaini behar duela iragartzen du. «2011. urtean kristau talde bat sortu genuen, Atxikberrituz izenekoa, Baionako elizbarrutiko apaizekin eta laikoekin, gizarteak bakea eskuetan hartu duen garaian Elizaren parte batek ere hartu duela jakitera emanaz. Beilak muntatzen ditugu, otoitz eta bake beilak. Jadanik hamabi herri izan dira ekimen hau jaso dutenak, batzuei eta besteei hitza ematen diegu eta gatazka hau zer izan den azaltzen dugu, eta baita nola gainditu behar den ere».





NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Entsaladak ez dira bakarrik udarako

Askotan entsaladak udarekin lotzen dira, baina udazkena eta negua ere entsalada koloretsu eta zaporetsuen sasoi dira! Plater bakar bat jan beharko bagenu, entsaladak aliatu ederra izango genituzke. Oso alternatiba aproposa dira, plater bakarrean nutriente ugari konbinatu ditzakegulako: zerealak, lekaleak, frutak, kontserbak eta, nola ez, sasoi barazki eta ortuari mordoa.

Jakin badakigu udazken eta neguko frutek eta barazkiek berebiziko garrantzia dutela gure osasunean eta sukaldean, baina askotan zer egin jakin gabe geratzen gara. Horrexegatik, oraingo honetan aukera asko eskaintzen dituen plater bat aurkeztu nahi dizuegu. Sasoi osagaiak eta frutak eta barazkiak erabiliz, bitamina, mineral eta zuntz iturri garrantzitsuak diren entsaladak prestatuko ditugu.

Frutak, karbohidrato eta zuntz iturri garrantzitsu izateaz gain, gure organismoa hidratatuta mantentzen laguntzen du. Bitamina eta mineraletan aberatsak dira frutak, hala nola A bitamina (ikusmena, azala, ile eta mukosentzako onuragarria dena) edota C bitamina (artikulazioen kolagenoa sortzen laguntzeko, hezurrentzako, haginrentzako eta infekzioen aurka egiteko). Mineralei dagokionez, potasio edo magnesio iturriak dira.

Barazkiak, frutak bezala, ezinbestekoak dira dieta egoki eta osasungarri batean. Apenas duten gantzik, eta karbohidrato eta proteina maila ere baxua da. Aldiz, zuntz asko daukate, baita azido folikoa eta bitaminak ere. Gainera, ur asko daukate eta organismoa hidratatzeko oso egokiak dira.



ORTUTIK AHORA ELKARTEA

Elikagai ezberdinek ematen digutena jakinda, Ortutik Ahora elkartekooi sasoi honetarako oso aproposa den errezeta bat etorri zaigu burura: udazken/neguko entsalada epela. Hau da: mineralez, bitaminaz eta zuntzez gainezka egiten duen errezeta gozoa! Gainera, prestatzeko oso azkarra da. Animatzeko zaituztegu entsaladak urte osoko plater bilakatzera, sasoi barazki eta osagaiak erabiliz plater osasuntsu eta gozoak sor ditzakegulako.

Gaurkoan sukaldaritza-teknika desberdinak erabiliko ditugu gure errezeta prestatzeko: lurrina, plantxa, mazera-zioa... Elaborazio desberdinak erabiliz bitaminaz eta mineralez beteriko plater koloretsu eta zaporetsu bat lortuko dugu. Lortu inguruko ekoizle ekologikoen produktu gozoak eta goazen sukaldara!

UDAZKENEKO ENTSALADA EPELA

OSAGIAIAK: Porrua, *pak choi*-a, Zallako kipula gorria, *calçot*-a, limoia, porru kimuak, Añanako gatza eta oliba olio

PRESTAKETA: Lehenik eta behin, Zallako kipula gorria zuritu eta erditik moztu. Kipularen erdi bat geroko gorde, bestea juliana eran moztu eta limoi baten zukuarekin beratzen jarriko dugu. Gatz apur bat gehitu eta gorde.

Gure entsalada prestatzen hasteko, *calçot*-ak garbitu, zuritu eta ahoan sartzeko moduko zatietan moztuko ditugu. Entsalada itxuroso bat prestatuko dugunez, proposatzen dizuegu zuen labanak zorroztea eta *calçot*-ak *sifflots*-etan moztea. Hori teknika frantziar bat da, barazkiei itxura biselduna ematean datzana. *Calçot*-aren atal zuria aukeratuta, labanarekin diagonalean moztu, 5 zentimetroko zatitan. Gauza berbera egin porruaren zati zuriarekin (hostoak salda bat egiteko aprobeitza ditzakegu). Gorde.

Pak choi-a edo aza txinatarrak hostokatu, garbitu eta gorde. Behin gure barazkiak prestatu ditugula, hartu porru zatiak eta *pak choi* hostoak eta baporean egin bost minutuz.

Egin eta gorde epeldu arte. Bestalde, zatitutako *calçot*-ak olio apur bat duen zartagin bero batean egingo ditugu, plantxan. Egin ostean, gorde guztiz epeldu arte.

Bitartean, ozpin-olio saltsa prestatzeko, lehenago gorde dugun kipula zatia laukitxo txiki-txikietan moztu (*brunoise* eran), limoi zuku apur bat gehitu, oliba olio txorrotada bat, gatza eta piperbeltzarekin batera. Dena ondo nahastu eta gorde.

Behin osagai denak epel ditugula hasiko gara gure entsalada epelaren muntaketarekin. Plater polit bat aukeratu eta oinarrian *pak choi* hostoak jarri. Gero, porruak harika atera eta tontortxo bat egin. Ondoren, beratzen utzitako kipula zatitxoak xukatu eta gehitu. Jarraian, plantxan egingako *calçot sifflots*-ak gehitu (lau-bost zatitxo plater bakoitzeko). Amaitzeko, ozpin-olio saltsarekin ondu eta porru kimuekin gure entsalada apaindu.

EkologikON EGIN!!

Zaplaztekoa

Koldo Sagasti

Iragan abenduaren 20an Israelgo Armadak Ahed Tamimi 16 urteko neskatila palestinarra atxilotu zuen Nabi Saleh herrian, bere etxe atarian grabatutako bideo bat sare sozialetan zabaldu ostean. Grabaketan nerabeak, esku hutsik, zaplazteko sonatua eman zion okupazio armadako soldadu bati, eta lotsagarri utzi. Berea ume palestinarr baten aurkako beste jazarpen istorio bat izan zitekeen, egunero oharkabean pasatzen diren horietakoa; izan ere, 2017an 467 izan dira okupazio ar-

mada sionistak atzemandako adin txikikoak. Berak ere Palestinako beste edozein haurrek izan ditzakeen bizipen larregarrien zama darama lepo gainean: aita hamar aldiz pasatu da Israelgo ziegetatik, amaren lehengusua buruan tiro bat jaurtita erail zuten soldaduek, neba bere aurrean erail zuten protestaldi batean, eta lehengusuari ere astebete lehengo biziarteko lesio larriak eragin zizkioten buruan tirokatuta. Baina Tamimitar gaztearen belarrondokoak ezohiko oihartzuna izan du

mundu osoan, eta arrakasta horrek baidu arrazoi bat: Aheden irudia –adats kizkur hori luzea, Piolinen elastikoa soinean, irribarre desafiatzailea ezpainetan– ez dator bat Mendebaldean emakume palestinarr batengandik espero genezakeen irudiarekin. Zaplastadak, beraz, okupazioaren ankerkeria nazioarteko iritzi publikoaren jomugan jartzeko balio izan du, baina baita Israelek elikatu eta guk sinetsi egin ditugun emakume palestinarrrei buruzko estereotipoak desmuntatzeko ere. •

Gutuna

Mirari Martiarena

Kaixo. Zer moduz? Badakit ia urtebete pasa dela idatzi zenidantetik. Mahai gainean dut bidali zenidan azken gutuna, egunero erantzutekotan. Ez baitut aurrekoekin gordetzen, erantzun artean, eta hortxe dago, sukaldeko mahai gainean. Batzuetan faktura artean nahasturik eta besteetan bista-bistan. Egunerokoan presente izan zaitut eta askotan pentsatu izan dut: «hau idatzi behar diot, eta beste hau ere bai».

Oraindik ez dizut kontatu lana utzi nuela eta abentura berrietan nabilela. Ia lau urteren ondoren zure herriko festetan eta ferietan izan nintzela. Ez naizela aspaldian mendira joan eta ez dudala argazkirik zuri bidaltzeko. Ez dugu azken Bertsolari Txapelketako porrarik egin, ez dakit nor zen zure favoritoa ere. Aix, a ze desastrea! Gaur Bilbora etorri gara, badakizu, urteroko hitzordua izaten da giza eskubideen, konponbidearen eta bakearen alde. Zuen alde eta zuengatik. Neguko hotzean

berotu ditugu Bilboko kaleak, berotu ditugu bihotzak eta azkena izan den esperantzan bueltatu gara etxera. Aurten “Prest!” gaudela aldarrikatu dugu eta ez dugula motxiladun haurrik nahi. Zer moduz dago zuen ttikia? Koxkortzen ariko da honezkero, ezta? Seguru bisitako ordu guztiak lerdea darizula pasatzen dituzula. Gustura ikusiko nuke zure aurpegia! Hurrengo gutunean igorriko dizkizut kontu gehiago. Hartu besarkada estu bat. •



Beñat Goitia eta Adrian Puck. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

infraganti BEÑAT GOITIA ETA ADRIAN PUCK

Isturitzetik Etiopiarara bidean topatu ditugu, «desparadisura» iritsi aurretik kezkaz beteta, Beñat Goitia musikari eta idazlea eta Adrian Puck Dja, biak ere gasteiztarrak. 2018ko martxoan abiatu zuten «Isturitzetik Etioipian Barrena», tradizioa eta modernitatea zinemarekin, musikarekin eta literaturekin lotzen dituen diziplina anitzeko ikuskizuna.

Aspaldiko lagunak dira. Duela ia urtebete ekin zioten «bidaia» ez da beren lehen elkarlana, aurretik musika talde berean izan baitziren, Beñat

gitarra jotzaile eta Adrian soinu teknikari. «Isturitzetik Etioipian Barrena» 2017ko martxoan estreinatu zuten, Gasteizko Oiha-neder Euskararen Etxean; ondoren, besteak beste, Iruñean, Eibarren, Donostian, Bilbon eta Laudion eman dute. Datorren

otsailaren zan, Zigoitian dute hurrengo hitzordua.

Arantzazuko kanpai hotsak ematen dio hasiera ikuskizunari, obrako pertsonaia bertako apostoluei begira ageri dela. Hasiera-hasieratik erreferentziaz eta keinuz betetako lana da; izan ere, gur egun leku beneratua den Arantzazuko basilika berriaren lanak Donostiako gotzainaren aginduz hainbat urtez geldiarazita egon zirela gogorarazi nahi dute, eta haren ikur nagusia, Oteizaren hamalau apostoluak, areka batean botata.

Ikuskizuna egiteko ideia unibertsitate garaian sortu zitzaion Beñati, Euskal Filologia ikasten ari zela. Bernardo Atxagaren «Etiopia» liburua nolabait literatura deskubritzeko bidea izan omen zuen. «Liburua irakurri ahala, ikuskizunerako moduko testuak zetozkidan burura», dio, «beste diziplina batzuekin uztartu ahal izateko testuak», Atxagaren lan hura indar eta gaurkotasun handikoa iruditu baitzitzaion, eta oraindik ere hala iruditzen zaio berrogei urteko testu hori. Ondoren Joxan Arzte idoro zuen, «Isturitzetik Tolosan barru» lanaren bidez. «Dekoraziozko poesiak, grafismoarekin, estetikarekin, uki-menarekin jolasteko era esperimental horrek, beste diziplina batzuetara hurbiltzeko eta beste dimentsio bat bilatzeko aukera ematen zidaten», azaldu du Beñatek.

Gainera, bi liburuok zenbait ildo komun dituztela konturatu zen; esate baterako, bidaia egitura. Atxagarena zirkulutan dago antolatuta, eta Artzerena atalka, «baina egitura aldetik eta gai aldetik badaude zenbait elementu zerbait komuna egiteko aukera eskaintzen dutenak. Estetikoki oso potenteak

ziren testu haiek beste dimentsio batera eramatea zen helburua, eta, aldi berean, «Etiopia» gure literaturan mugarri nabarmena denez, gazteei ere helaraztea, nire belaunaldiak ez baitu ezagutzen». Hartara, testuak berreskuratu eta gaurkotasun ukitu berritzaile batekin gazte jendeari eskaintzeko aukera hori baliatu zuen.

BEDERATZI ZIRKULU, BEDERATZI KEZKA

«Etiopia» bezala, bederatzi zirkuluk osatzen dute Beñaten eta Adrianen ikuskizuna, bidaia egitura duena. Pertsonaia jaio-tzen denetik, lana, erlijioa, beldurra, isiltasuna eta bizitzan zehar topatzen dituen beste zenbait kezka zirkulu banatan lantzen dituzte. «Jaio zara. Munduaren zabalgunek izugarrian. Hats bat. Bi hats. Hiru hats (...) Oihanak, basoak, landak eta desertuak igaroko dituzu, bederatzi zirkulutan barrena. Geruza lur-arrenetik infernuaren sakontasunera». Horrela hasten da «Jaiotza» atala, zirkulu-eta-rako sarrera gisa. Halako batean Etiopiarara, «desparadisura» iristean amaituko da bidaia.

Lan honetan hiru diziplina uztartu dituzte: ikus-entzunezkoa, musika eta literatura. «Ez da errezitaldi bat, ez kontzertu bat, ezta film bat ere, baina badihiru-eta-tik zerbait». Zirkulu bakoitza diziplina batekin edo diziplina uztarketa batekin lantzen dute, batzuetan irudiaren eta musikaren bitartez, beste batzuetan hitzaren bitartez, edo irudi hutsarekin, diziplina guztiak konbinatuz. Musika Beñatek interpretatzen du gitarra, maiz *loop* delakoa eginez, hau da, oinarri bat grabatu eta horren gainean gitarrarekin «geruzak» eginez. Lortu nahi duten atmosfera sortzeko oinarria Adrianen elektronika da,



Bidaia luzea dute aurretik, «desparadisuraino». Samurragoa izango bide da elkarrekin.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

horren gainean antzezpena eta irudiak agertzeko.

TRADIZIOA ETA MODERNITATEA

Ikus-entzunezkoak, alde batetik Aitor Zarzuelo lasartearrak zuzendutako “Desparadisua” film laburra eta bestetik “Amalur ” eta “El mayorazgo de Basterretxe” filmetan oinarritutako bi muntaiaren proiektzioak dira. Zarzueloren film laburrak lau atal ditu, ikuskizunaren lau zirkulutan proiektatzen direnak. Beste bi filmetatik hartutako zatien bidez lanaren eta erlijioaren gaineko gogoetak egiten dituzte, aldi berean zinema kostunbristari keinu bat eginez. Filmetako audio batzuk sampler bezala jaurtiz denboran atzera jotzeko programazioak osatzen dituzte. Elektronika oinarri duen atmosferan

tradizioaren eta modernitatearen arteko lotura egiteko asmoz erabili omen dituzte film horiek. Behin atmosfera hori sortuta, errezitatzen hasten dira. Elektronika beti kantua- ren zerbitzuko dagoela diote, kutsu tradizionaleko kantua- k osatzeko oinarri erritmiko gisa.

Laugarren zirkuluan, ordea, isiltasuna da nagusi, Jon Cageren “Lau minutu eta hogeita hamahiru segundo” bideoa ikusgai dagoela, denbora bereko isiltasuna, hain zuzen. Denbora hori igarota, isiltasuna hautsi eta isilta-

Bederatzi zirkuluk osatzen dute ikuskizuna. Pertsonaia jaiotzen denetik, lana, erlijioa, beldurra, isiltasuna eta topatzen dituen beste zenbait kezka zirkulu banatan lantzen dituzte

Lan honetan hiru diziplina uztartu dituzte: ikus-entzunezkoak, musika eta literatura. Zirkulu bakoitzean diziplina bat edo diziplina uztarketa bat erabiltzen dute, guztiak konbinatuz

sunaren gaineko gogoeta hasten da.

Testu gehienak Beñatek idatzia- k dira, baina obrak oinarri dituen liburu- etako zenbait tes-

tu ere baliatzen dituzte.

Berrogeita hamar minutuko iraupe- na du “Isturi- t z e t i k Ethiopian barrena” ikuskizunak. «Oso trinkoa da eta arreta handia eskatzen du», diote, baita

kontu abstraktuak direnez ikuskizunak trinkoa izan behar duela ere, testu gutxikoa eta erritmo bizikoa. Geldiune bakarrak zirkuluen artekoak dira, «arnasa

hartzeko». Gai guztiek dute uki- tu sentsoriala. Baten batek esan die ez duela ulertu; «gertatzen da ohituta gaudela dena ulertu behar izatera, baina ez da dena ulertu behar». Ulertzen ez du- gunaren eragin nabarmena lor- tzea dute helburu, alderdi sen- sorialaren eragina, hain zuzen.

MONTAUK

Beñat Montauk musika taldeko kide ere bada, Gorka Etxebarria, Urko Urzelai eta Aitor Garcia de Vicuñarekin batera. Montauk, Goitiak dioenez, Adrian Puckekin antzezten ari den ikuskizunaren bide beretik doa. «Musika banda da eta kantua- k egiten di- tugu, baita diskoak kaleratzen ere, baina estetika aldetik bide berdinetik doala uste dut». Ban- da literarioa da, eta publikoa- rengan antzeko sentsazioak era- giten dituztela uste du. Letrak ez omen dira ulertzeko eginak, «sentsorialagoak baizik», ba- tzuetan entzuleak esan dezan: «ez dut ulertu, baina halako kezka gogorarazi dit». Testuak garrantzi handia du taldearen abestietan. Beñatek idazten ditu letrak eta musika.

Taldearen izena Ramon Sai- zarbitoriaren “Martutene” ele- berria irakurritakoan hautatu zuten, haren erreferentzia na- gusi den Max Frischen izen be- reko obraren izenburua baita. 2016ko martxoan “Bilaketan” diskoa kaleratu zuten, izenbu- rua irakurrita azalpen handirik behar ez duena, eta hurrengoa otsailean edo martxoan graba- tuko dute. Bilaketa haren oste- an, bi urteotan taldearen izaera nolabait definitu dela dio Beña- tek, eta hurrengo diskoa «inge- lesagoa» izango dela uste du.

Ezin bukatu lerrook artista gasteiztarroi bidaia arina izan dezaten opa izan gabe. •

Xabier Izaga Gonzalez



Maria Gonzalez Gorosarri - @albistetan
EHUko irakaslea

Kritikaren eragina

Hedabideen analisia egiterakoan, urruneko hanka sartzeak kritikatzeko gertukoak aztertzea baino errazagoa da. Horregatik, kol-darra deritzot. Horrela, ez nuen “La Razón” gaitzetsi, honako titulua argitaratu zuenean:

• «*El error de ‘El Chicle’: No quitó el móvil a Diana [Quer] antes de meterla en el maletero*» (“La Razón”, 2018/01/01).

Alderantziz, gertuko hedabideen jardunari erreparatzen badiogu, horixe aldatzeko eragin handiagoa izan dezakegu. Gertuagokoei kargu hartzea deserosoa da. Aurkaritzat hartzen dugun ideologiari jarraitzen dioten hedabideei egiten diegun kritika, neurri batean, ez da argudioetan oinarritzen, duten ideologian baizik. Horregatik, “La Razón”-en horikeria salatu baino, ETB2-ren “El lector de huesos” saioak erakutsitakoa gaitzetsi nuen. Bertan, Juan Carlos Aguilarrek Jenny Rebolloren gorpua zelan zatitu zuen irudikatzeke, Dani Alvarez kazetariak eta Paco Etxeberria forentseak txerri baten gorputzarekin aizkorarekin eta labanekin egindako mozketak alderatu zituzten, gorpu bat zatitzeko erarik eraginkorrena zein den jakitera emateko. Telebista publikoan irakatsi zuten.

Asteon, «Deia»-n Xabier Vila-Coiak idatzi duen iritzi-artikuluak («El Caso de ‘La Manada’: ¿Violación o filme porno?») kritika sorta handia jaso du, bortxaketaren apologia egiten duelako. Hala ere, kritikarik ausartena “Deia”-n bertan zutabea idazten duen Pilar Kaltzada kazetariarena izan da, etxe barruko kritika izan delako, gehien arriskatu duena delako:

• «Denetarik ikusi dut, baina ez nukeen sekula pentsatuko joan den bari-kuan argitaratu zen zabo-

rraren parekorik leituiko nuenik neurri txikian bederen neurea ere baden egunkari honetan». (“Deia”, 2018/01/09).

“Deia”-k artikulua erretiratu du.

Ildo horretatik, niri oraingoan GARARI egindako kritiken inguruan idaztea dagokit. Zutabe hau idazten hasi aurretik, GARARI leporatzen nion kritikarik ohikoena ikuspegiarena zen. Hau da, andrazkoen kirola albiste bakarrean goraipatu, eta, gainera, informazio nagusiaren azpian.

Hala ere, GAUR8k GARARI kritika egiteko lekua egin zidan 2013an. Nire lehen artikuluan aipatu nuen lehen hedabidearen jarrera okerra GARARENA berea izan zen, “ustezkokeriak” salatzeko:

• «Ehunka herritarrek pasa den asteburuan Zarautz eta Getaria artean jazo zen ustezko eraso sexista baten aurka protesta egin dute» (GARA, 2013/03/25).

GARAN bertan poliziaren bertsioa bere egin eta susmagarri bat erailteza “hil zen” esamoldearekin ordeztu izana salatu nuen:

• «*Abdelhamid Abaaoud, supuesto cerebro de los ataques, murió en el asalto de Saint-Denis*» (Naiz, 2015/11/19).

Azkenik, GARAN ere albistearen “zelan” galderari informazioaren “zergatik” azaltzeari baino tarte handiagoa egin izana gaitzetsi dut:

• «*El marido reconoce haber matado a su mujer y su suegra en Abadiño*» (GARA, 2014/12/11).

• «*Lufthansa conocía que en 2009 Lubitz sufrió una depresión, de la que fue dado de alta*» (GARA, 2015/03/31).


Kasu horietan guztietan, GARAK ez dit esandakoa zentsuratu, nahiz eta nik uste idazten nuen azken zutabea izango zela. Beraz, oraindik GARAREN jarduna aztertzeko aukera eman dinate. •



Hedabideen analisian, errazagoa da urrutikoak kritikatzeko. BOGAJO | A. PRESS

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. FOTOCAR FUNTSA. RICARDO MARTIN

1931 KO BIZIKLETA-OINEZKO LASTERKETA, DONOSTIAN

1931ko otsailaren 1ean, Estatu mailako bizikleta-oinezko lasterketa izan zen Donostian, bigarrenez. Parte-hartzaileek 20 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten ekaitz giro betean. Lasterkariak Urumea pilotalekutik abiatu ziren eta Bulebarra gurutzatu ondoren, hondartzara jaitsi ziren. Bertan, parte-hartzaile batzuk, bizikletak eskuan hartuta, uretan sartu ziren. Igeldotik eta Donostiako zenbait auzotatik barna pasatu eta gero, helmuga Kursaal parean izan zen. Eusebio Bastida azpeitiarra izan zen irabazlea eta bigarren Joaquin Iturri donostiarra geratu zen, Fortuna Kirol Elkarteko kidea. Handik astebetera bi gipuzkoarrek Parisen jokaturako nazioarteko txapelketan parte hartu zuten. Ricardo Martinek egindako argazkian lasterketako korrikalari bat ikus daiteke, oztopo bezala erabilitako gurdi baten gainetik pasatzen. Epaileek eta ikusleek gertutik segitzen dute kirolaria.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*